

Euskararen eliz erabilpena eta Luku Gotzaina (1545-1556)*

JOSEBA INTXAUSTI*

Joan berria den 1995 horretan bete dira 500 urte *Juan Bernal Díaz de Luco* sortu zenetik, 1495eko abuztuaren 19an jaio baitzen gerora Kalahorrako Gotzain izango zen hau. Eta urte berean berdindu dira, gainera, 450 urte Euskal Herrian Araba eta Bizkai gehienak eta Deba arroa hartzen zituen Elizbarruti hartako Apezpiku izendatu zutenetik. Ospakizun bikoitza, beraz, Luku-ri zor dioguna.

Haren eliz ardurak gorabehera, beste arrazoirik badugu, ordea, Lukuren oroitzapena orrialde hauctara ekartzeko: ikusiko dugunez, gure herriko euskaldungoari eta berorren hizkuntzari buruz hark idatzitakoengatik lehen leku jakin bat —jasoena ez bada ere— zor zaio Gotzain honi elizgizonen artean. Lukuk bultzatu zituen euskararen eliz erabilpenak guztiz berriak ezin zitezkeen izan, noski, gutxienez bostehunen bat urte lehenago osorik kristaututa zegoen herri honetan, baina, era berean, ez dago zalantzarik eliz erabilera hori hark berritu edo indarberritu nahi izan zuela.

Badago hirugarren arrazoi bat ere aurkezpen labur hau egiteko: badirudi ez dugula sobera ezaguna Joan Bernal Luku, eta inorenarekin ez ezik haren beraren buruarekin ere nahastekatu dugula(1), guztiz ahantzi ez dugunean(2).

Gaizki ulertze horiekin edo argibide egokiagoen eskasiarekin ere, izan da gure artean pertsoniaz arduratu denen bat edo beste (Urrutia

(*) Ikerlan hau *Euskal Fundazioa*-ren laguntza eta erraztasunci esker burutu da.

(1) Ik. adibidez, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. Donostia: Auñamendi. Bi sarrera eman dizkio pertsonaia bat berari: s.v. "Bernal Díaz de Luco, Don Juan" eta "Díaz de Luco, Juan Bernal". Izendatuak berak bere burua inoiz (1545eko gutun batean) eta bestek ere bai, artean pertsonaia bizirik zela, "Doctor Bernal" bezala aipatu izan zutenaz, pertsonaiaren bigarren izena lehenengo abizen bezala ere erabili izan da, eta hortik, noski, entziklopedia honetako sarrera bikoitza; bestalde, horko zertzelada biografiakoak zaharkituta daude, azken ikerlanen ondoren. E. AMEZAGA, bere *Autores vascos*-en (Algorta, 1987) zuzenago dabil, baina honek ere sarrera "Bernal Díaz de Luco" gisara eman du: II, 270.

(2) Ikusi besterik ez dago azken urteetan argitara emandako Penintsulako Elizaren Historia landuenetan, nola hutsaren hurrengo aipuren bat bakarrik eskaini zaion. Ik GARCIA-VILLOSLADA, R. (1980): *Historia de la Iglesia en España*. Madrid: Ed. Católica (BAC). Izena aipatu, egiten da bakarrik, besterik ez: III-1º: 162, 163, 181, 380; III-2º: 353.

1911; López de Guereñu 1965), eta inoiz bidenabar, jaso da euskal Historia orokorren batean haren albiste galduren bat ere, Labayru-renean adibidez (Labayru 1900: IV, 236-242, 250-251, 257-258, 299, 766-768), edo Historiako Erret Akademiaren hiztegi geografiko-historikoan (1802: s. v. "Luco", I, 460-468).

Ikerlan monografikoagoetara gatzozela, Mañarikuari zor diogu zerbait gehiagorik, izan ere Begoñako Santutegiaren historian saiatu baitzen Gotzain honen albisteak ere biltzen (Mañaricúa 1950a: 187-193, 23*-30*); geroxeago, Telletxeak hartu zuen aintzakotzat Luku, gotzain-erreformaren historiaren ikuspegitik aztertuz (Tellechea 1956: *passim*; 1963: 45-65).

Euskal Herriko ikertzaileetatik at, zenbait urtetatik hona historiografiak berreskuratu ere egin duen norbait da Luku, dagoeneko. 1995eko urte horrek ekarri dituen ikerlan berri edo lehendik argitaragabeen aitzinetik berreskurapen-lanetan bizpahiru ikertzaile gogorarazi behar dira aurrena. Lehenengoa, Tomas Marín errioxarra da, Lukuren biografia argitu, haren harat-honatak aztertu eta idazlanak argitaratzen saiatu delako(3), eta besteak, Marcel Bataillon frantsesa eta Hubert Jedin alemana ditugu.

XVI. mendeko bizitza izpiritual-kulturalaren bilakaera, gertakari eta pertsonaien zurajea eta mamia egun-argitara ekartzera zuzendu zen Bataillon-en lan erraldoia (1895-1977). Bere obra nagusiaren 1966ko edizioan bidebatezko bi aipu laburretara mugatu zuen Lukuren oroitzapena (Bataillon 1966(2): 339, 534), baina historilari frantsesak lehenagotik zeukan somatuta Lukuren arrasto historikoa (1952) eta iradokirik zeukan haren biografia baten premia ere, Elizaren beraren barne-erreformaren historia ulertzeko ez ezik, Penintsulan eta Mundu Berrian humanismo kristauak izan zuen zuzperraldia hobeki konprenitzeko ere (Bataillon 1976: 270-271).

Hubert Jedin-ek beste begira-puntu batetik barruntatu du Lukuk duen interes historikoa. Jedin, gaur egun indarrean dagoen Elizaren Historia orokor onenaren zuzendari eta idazlea dugu, eta XVI. mendean berezitua; Trentoko Kontzilioaren historiari eginena zor zaio berari (1949-1975), eta iker-eremu horretan topo egin du Jedin-ek Luku Gotzainarekin. Kontzilio hartako batzarkideen artean honela lekutu du Jedin-ek Luku Gotzaina (Jedin 1972a: 641; 1972b: ik., gainera, obrako aipu-aurkibideak):

Junto a los italianos, que formaban en términos redondos las tres cuartas partes [Kontzilioaren Trentoko lehen epealdiaz ari da], sólo los españoles estaban representados en número notable, y por eminentes obispos (Astorga, Calahorra, Badajoz) y bajo la dirección del cardenal Pacheco, obispo de Jaén, forma-

(3) Ik. bibliografian T. Marín-ek kaleratutakoak; baina, dakigunez, baditu inprentaratu gabeko lanak ere, bereziki biografiari dagokiona, eta Luku-k Euskal Herrian burutu zuen pastoral-lanaren historia.

ban, junto con los obispos de Nápoles, Sicilia y Cerdeña, un grupo cerrado en cuestiones de relevancia política. Francia estaba representada por tres obispos; Alemania, tras la marcha del obispo auxiliar Helsing en enero de 1546, sólo por los procuradores de los obispos de Maguncia y Tréveris.

Luku ez zen egon, beraz, mende hartako erabaki-leku handietatik urrun, erran nahi baita, Elizbarruti ezezagun batean galduta geratu zen Gotzaina, eta aldiz, horrexegatik hain zuzen, garaiko arrangura eta eliz plangintzen oihartzuna soma dakizkieke bere Diozesian sustatu eta gidatu nahi izan zituen zereginei. Garaikotasun horrek eta Luku-ren nortasun beteak zuzenesten dituzte Mañarikuak idatzitako hitzok (Mañaricua 1975: 19): “Kalahorrako Aulkia bere historia luzean gidatu izan duen gotzainik loriatsuena izan da beharbada On Joan Bernal Díaz de Luku, handienetako bat behintzat. Izan zituen karguengatik, Trentoko Kontzilioan izan zuen partehartzeagatik, Elizbarrutiaren gobernuan zor zaionagatik eta idatzitako liburuengatik, haren izenak urrezko hizkiz zizelkatua izatea merezi du gure herriko historia izpiritualean”.

Bataillon, Jedin eta abar aipatu ditugu, baina historilari horien ondoan, Kalahorrako Elizbarrutiaz zihardutenen lanetan ezinbestekoa izan da Luku-ri buruz honi zegozkionak ematea (San Juan de la Cruz 1925: 173; Alamo 1949: 300-301; Marín 1972a: 307). Tomas Marín da, hala ere, albisteak bildu eta Luku-ren bizitza eta obra espreski aztertu dizkiguna, eta komeni da berorren lanetako berritasunak gure artean eskueran jartzea. Biografia zabalago baten zain gauden bitartean, beti ere baliagarri gertatuko zaigu jada biografo honek eskainia duen bizitza laburragoa (Marín 1972b: II, 750-753).

BIZITZA ETA LANAK (1495-1556)

Joan Bernal Díaz de Luku Sevillan jaio zen, 1495eko abuztuaren 19an. Marín-en lanetan frogatutzat eman da hori (Marín 1972b: 750; Akademiarena jasoz: 1802, 460). Joan Bernal haurrak ama arabarra zuen (Luku herriko alaba), eta aita, berriz, jatorriz edo jaiotzez Huelyakoa. Nahikoa segurutzat eman liteke, amaren izena Maria de Lekeitio zela, eta segurutzat Cristóbal Díaz aitarena, sudiakonua berau eta Sevillako katedraleko arrazionaria. Elizgizon baten sasikoa zen, beraz, haur jaioberria, baina borta izanik ere, gora egin ahal izan zuen Elizan. Seguraski, aldarean aitari jendearen begi onez lagundu ahal izan ez ziona, azken buruan amaren herritarren aurrean Gotzain bilakatuko zen, merezimendu propioz(4).

Jaioterria gorabehera, Luku-ren arabartasunak erro zindoak ditu: amaren sorterriaren izena hartu eta erabili zuen deituratzat (ondoko

(4) Barka bekik ahopeko ironia ttipi hau, Kalahorrako Sinodaletan arautu zena gogoraraziz (1553): “Que ningún hijo bastardo de clérigo ayude en público a missa ni a los officios divinos a su padre” (fol. 31 v°). Merezimendu propioarena berehala ikusiko da, osteria.

hainbat historiarik deitura, nahasturik, *Lugo* bezala eman zuen arren: San Ignazioren gutun-biltzaileak ere ez dira hortik libratu); oztopagarri izan zitekeen bere sasikotasunak ez zuen jatorria izkutatzera eraman. Bere familiartea eta Luku herria biziki maite izan zituen, bere hilburuko borondatean eta testamentu-erabakietan agerian utzi zuenez; zer esanik ez, Euskal Herriko eta herri euskaldunetako jendearekiko ardura bizia ikusten zaio Joan Bernal-i bere lan pastoraletan. Azkenik, Luku-ko elizan ehortzi zuten, noiz eta nola ziurki ez dakigun arren, eta hantxe dago egon ere, hain maiteak izan zituen herritar haien ondokoen artean, elizako aldare aurrean (López de Guereñu 1965: 224; Marín 1972b: 752).

Jakituna, idazlea eta garaiko politikan sarturiko elizgizona izan zen On Joan Bernal. Unibertsitate-ikasketak Salamankan egin zituen, Dekretuetan (1510-1521), baina doktoretza Huesca-ko Unibertsitatean hartu zuen (1525). Horren aurretik, ordea, bere lehen liburua argitara emanda zeukan (1520) (Marín 1952: 268).

Ondoren, argitalpen juridikoak eta zerbitzu pastoral-politikoak, denak batera joan ziren Lukuren bizitzan, eliz Hierarkiaren eta Koroaren faboretan. Tavera kardinalaren zerbitzari zela, eta egiteko hau utzi gabe, 35 urterekin Indietako Kontseiluko izendatu zuten (1531), eta honek aukera eman zion Mundu Berriko gorabeherak ezagutu eta Aurkikunde eta Konkistek Penintsulan eta Europan sortu zituzten arazoetan lekuko izateko, izan ere Indietako Erret Kontseilu Goren hau baitzen Ameriketako politikarako Koroaren Erakunde nagusia⁽⁵⁾. 1541ean —Amerikarekiko politika osoa krisian erortzera zihoan unean— Kontseiluari “erresidentzia” egin zitzaion (gaur auditoria esango genuke), eta Luku izan zen garbirik eta sano atera zen kontseilukide bakarra. Ez da harritzekoa, hortaz, 1549an Las Casas-ek, Luku berririo Kontseilura itzularaz zezatela eskatzea (Bataillon 1976: 258).

Lukuren alderik nabariaren eta lehiatsuenetakoa haren erreformazaletasuna izan zen (Marín 1954a: 261). Ardura horrek, Hierarkiaren eta, oro har, kleroaren zabarkeria eta nola-halako burubideak salatzea eraman zuen, batetik, eta kristau-herriaren heziketa hobearen premia azpimarratzera, bestetik (predikua, katekesia).

Burutik hasita biziberritu eta bizi-hobetu nahi izan zuen Eliza: Toledon, artean gizon gordina zela (1536), Erret Kontseilutik, noski, eta Trenton eta Kalahorrako Elizbarrutian gero (1546, 1553). Idazlanek, hitzaldiek, Sinodoek eta harreman politikoek, guztiek balio izan zioten apezleriaren eta eliz arduradunen erreforma sustatzeko.

Baina erreforma-politika honen aurretik eta aldi berean, Lukuk bibliografia zabala utzi zuen idatzi eta argitaratuta, edo argitara gabe: 30ren bat obra dira haren lumatik irtendakotzat eman ditzakegunak,

(5) XVI.lean Koroak bi Erakunde goren zituen Ameriketako politika gidatzeko: Sevillako Kontratazio-Etxea (1503) eta Indietako Erret Kontseilua (1524); hark politika ekonomikoaren ardura zuen, eta honek politika orokor osoa zaindu behar zuen urte haietan (1524-1557). Elizgizonak garrantzizko erantzukizunak izan zituzten Kontseilu honen barnean, edo kanpotik, berorrenzat lan egitean.

latinez eta gazteleraz. Bi kapitulu nagusi handitan bana daitezke idazlan hauek: legeria kanonikoa eta izpiritualitatea, betiere teoria hutsetara baino praxira begirago zeudenak (Marín 1972b: 752). XVI. mendeko eliz idazle handien artean ez badago ere (Vitoria, Soto, Karrantza, edo Granada eta Frai Luis Leongoa), Lukuk toki aski duina merezi du mende hartako eliz idazleen artean (Marín 1962: 366; 1963: *passim*).

Luku-ren ahotsa Penintsulan ez ezik Trento-tik Europan —eta Kontseilutik Ameriketara ere— entzun ahal izan zen, betiere jatorrizko argitalpenak eta itzulpenak lagun; haren obretako batzuek, gainera, zabalkunde ederra ezagutu zuten mende hartan, autorea bizi zela eta hilondoan ere (*Index*: 1524an, eta beste lau edizio; *Aviso*: 1536an, eta beste bost ed.; *Practica criminalis*: 1543an, eta 26 ediziotaraino XVI.ean; *Regulae*: 1546an, eta beste lau ed.) (Marín 1952: 301-308).

Elizgizon idazle honen barrunbe intelektuala beste alde batetik ezagutzeko, hark esku artean izandako liburutegi pertsonalaren albisteak ditugu, hain zuzen Lukuren beraren garaian egindako katalogoa iritsi baitzaigu —nahiz eta Kalahorran egon beharko zukeen biblioteca bera galdua den—. Bostehun eta hamabost titulu bildu zituen Lukuk bere liburutegian, ia 650 liburukitan banatuta (Marín 1952: 265-267, 301-306). Ondare honen argitan, historilariak honela deskribatu digu Luku-ren aurpegi kulturala:

... además de obispo, Padre de Concilio y Consejero de Indias, fue jurista eminente teórico y práctico, versadísimo en teología y ciencias eclesiásticas (...), profesor de lenguas clásicas y cultivador de la historia, escritor fecundo, buen literato y sabio de vastísima erudición un poco al modo de aquellos humanistas coetáneos suyos que llegaban a disertar de omni re scibili. Así se explica que en su biblioteca se confundieran los libros de Derecho y de matemáticas, de teología y de medicina, de Santos Padres con autores clásicos y renacentistas, de predicación y ascética con profana literatura, los escriturarios y litúrgicos con otros de filosofía, historia, bellas artes y asuntos de Indias. (...). Prescindiendo del número y atendiendo a su calidad, nos sorprenden algunas obras en francés, portugués e italiano, tratados en varios idiomas, libros de rito ambrosiano y mozárabe, un tratadillo de cambios, etc. (Marín 1952: 267-268).

Mundu zabalera begira bizi izandako gizona zen Luku, bere izaera eta jarreraz ez ezik, ofizioz eta egokieraz ere, eta hori da liburutegian ispilatu zena; ez gaitu, ba, bibliotekako edukinak sobera harritu behar. Aristotele eta Azpilikueta, *Biblia Poliglota* eta *Aritmética y Geometría en romance*, Zizeron eta Kontzilioen agiriak, Gaztelako Erreinuako Kronikak, Dante eta Eiximenis, Erasmo, Vives eta R. Etienne, Bizkai nahiz Aragoiko Foruak, Nebrija, edo Mudarra-ren musika-liburuak, Elizbarrutiko herri eta elizen albisteak, Seneka eta Soto, etab. (Marín 1954b: 52-82).

Kultur irekitasun horrekin batera, idazlearen nazioartekotasuna ere azpimarra liteke hemen. Haren liburuen argitara-hiriak Europan zehar barreiatzen zaizkigu: Salamanka, Lyon, Medina del Campo, Venezia,

Lizarra, Okzitaniako Tolosa, Alcalá, Brescia, Paris, Burgos, Anberes, eta autorea hil ondoko hamarkadetan: Erroma, Mainz, Leipzig, etab.

Inprimatzaile sonatuen eskutik kaleratu zituen bere lanak: Brocar-en moldiztegitik, noski, baina baita Egia, Bosozzelli, Junta, Millis, Pagano, eta abarrenetik ere. Bestalde, erbestean egonaldi luzerik ere egin zuenez (eta inoiz egonean egon beharrean suertatu), idazlanak nonahi sortu zituen, eta Penintsulan bezala (Valladolid-en, adibidez) atzerri urrunagoan ere geratu zaio eskuizkribu argitaragaberik (Veronan, kaputxinoen komentuan). (Marín 1952: *passim*).

Bere adin-heldutasunera iristean, bi zeregin-molde ezberdinetarako egokiro prestatutako gizona zen Díaz de Luku: Zuzenbidean lan intelektualerako, eta Elizaren goi-politikatik berorren erreforma egiteko. Karlos V-ak ere halatsu ikusi zuen, 50 urte betetzear zituela Kalahorrako Gotzaindegirako aukeratu zuenean, 1545eko udaberrian.

Zenbatekoa eta nolakoa zen, ordea, Luku-ren ardurapean jarri zen Kalahorrako Diozesi hura? Penintsulako beste Elizbarrutiekien alderatuz, eliz jendez hornituegia zela esan behar da, eta prestakuntza eskaseko kleroa zuela. Kristau-herria, ostera, bizilekuz, kulturaz eta hizkuntzaz konplexua zen. Bestalde, eliz erakundeak ez zuen harreman errazik agintari zibilekin, ikusiko dugunez. Gaur egungo historilariak bat datoz Muro-ren iritzi honetan (Azcona 1981: 78, 80; Tellechea 1981: 108; Muro 1994: 54):

El tipo de clero mayoritario en las diócesis vascas [...] está compuesto por gentes de un bajo nivel cultural, escasamente formados en sus tareas específicas y con modos de comportamiento y medios de vida similares a los del pueblo. Para acercarnos a la realidad cuantitativa del fenómeno clerical vasco baste decir que, a finales de la Edad Media el obispado de Calahorra era considerado "el más populoso y de más gente de toda España y de mayor clerecía, cabeza de Celtiberia, Cantabria y Vasconia", con un número aproximado de 20.000 clérigos para tan solo 15.000 beneficios, lo cual da idea de su nivel de vida.

Kleroaren gaitasun eskasa halakoxea zen, nonbait, baina kopuru koantitatibo horiek "koroatuen" arazoarekin lotuta daude, hau da, eliz benefizioen jabe egiteko haurtzarotik tontsuratuak izandakoekin alegia (gerora gehienak apaizgora iritsiko ez ziren eliz jende ugaria, hain zuzen) (Azcona 1981: 79-80; Muro Abad 1994: 76). Elizbarrutiko ekonomiaz eta gotzainaldien iraupenaz ari garela, gogoan hartzekoa da Telletxearen ohar hau (Tellechea 1981: 198):

Pamplona, Calahorra y Bayona son diócesis modestas, si nos atenemos a su renta. Esto explica el que funcionen como diócesis de entrada o tránsito y que sus obispos no permanezcan largo tiempo en ellas.

Luku-ren Gotzain-izendapena tradizio berri baten abiaburuan dago, hau da, jatorri noblean baino balio pertsonalean oin-hartutako hautapen-

KALAHORRAKO GOTZAIN

molde baten hastapenetan. Erreforma Katolikoko aldi berri baten ezaugarria ere bada, ba (Marín 1954a: 260).

Badirudi, Karlos V.ak Kalahorrako Elizbarruti zabala haren eskuetan jarri zuenean(6), beste asmo batekin ere egin zuela hautapen hura: Trentorako "bere" gizonak behar zituen, konfidantzaz eta jakitez Enperadorearen eliz politika ere defendatuko zutenak (Marín 1954a: 263, 298-299). Horietako bat Luku izan zitekeen, Penintsulako beste hiruzpalau Gotzainekin batera. Horixe izan zen gerora gertatu zena, guztion buru Pacheco kardinala zela (hain zuzen, Iruñeko Gotzain izana eta Jaén-era aldatu berria berau) (Gofñi Gaztambide 1985: III, 340-341).

Izendatu eta berehala heldu zion Lukuk Elizbarrutiko lanari: maiatzean jabetu zen Diozesiaz, eta uztailaren 5ean gotzain-hirian zen. Trentorako irten aurretik, urtebete eskas gelditzen zitzaion Elizbarrutiaren berrikuntzari ekiteko; berriro diogu, izan ere Luku ez baitzen iragan egina, beste gabe, jasateko gizona: aldeztu aurretik zekien hark zein moldetan jardun nahi zuen eliz bizitzaren berrikuntzan.

Pentsamoldez eta joeraz erreformazale bezala aski definituta zegoen ordurako Gotzain berria. Horretaz, idazle bezala esanda zeuzkan esatekoak, bere idazlan juridiko eta pastoraletan, eta Salamanka nahiz Toledoko Elizbarrutietan entseaturik zegoen erreforma-zereginetan ere, Indietako Kontseilutik buruturikoak ahanzi gabe. Horrela, Fonseca, Espainietako Primatua suharki eztenkatu zuen Lukuk, artean gaztea izanik, bere Artzapezpiku-barrutian erreformari ekin zieziaion: 1530eko *Epístola Exhortatoria a Don Alonso de Fonseca*. (Marín 1952: 288). Horregatik idatzi ahal izan da zerau (Marín 1954a: 261-262):

Semejante afán de reforma sobre una base eminentemente conciliar debió de tener en los años y oficios sucesivos del Dr. Bernal manifestaciones constantes, y el concilio universal por que venía clamando la cristiandad entera encontró en él uno de sus paladines más decididos y contundentes. En su biblioteca particular se alineaban cuando murió mas de veinte obras de asunto conciliar.

XVI. mendeko erreforma-korronteen barnean ikusi behar da Luku — agian inoren korronte-eskolatan osorik sartu gabe —. Garaiko zenbait erreformazalegandik jasotako idarokizunak, bere labean ondu ondoren, tokian tokiko beharretara eta egokiera bakoitzera moldatu zituen, proposamenak eta erabakiak bere gisara egin eta hartuz.

Erreformazaletasun honetan, Marín-ek espreski erakutsi du Lukuren jite erasmista, beronen ingurua, idazlanak, politika eta ideiak holandarraren ahaidetasunean lekutzean (Marín 1962: 57-65). Valdés-en edo Erasmo beraren salakuntza literarioki bortitzagoetara iritsi gabe, Luku-k beti bizirik mantendu zuen erreformaren asmoa, baita erasmismoak bere beheraldia hasi zuenean ere (1535) eta, ondoren, Trenton eta ondoko urteetan (1545-1556).

(6) Kalahorrako Elizbarrutiaren eremua ezagutzeko, ik. mapak: Alamo 1949: 290 eta Mañaricua 1964: 316-317 (Gasteizko Elizbarrutia sortu-aurreko egoera).

Zehazkiago, haren liburutegian aurkitu dira etxean bertan zituen iturri humanista erreformazaleen argitalpenak: Vives, G. Budé, adibidez, eta Erasmo batez ere (Marín 1954b: 63). Marín-ek, Luku-ren *Colloquium elegans* deitua dela-eta (Paris, 1542), erasmismo-aztarnak aurkitu ditu liburutegian ez ezik autorearen pentsamenduan ere. Bestalde, korronte-inguru horretako hainbatekin ere izan zuen harreman hurbilik: Hernando Colón bibliofiloarekin, edo zenbait Gotzain erasmista nahiz Alcalá-ko giro erreformazalearekin (Marín 1962: 56-60; 1952: 292).

Penintsulan lehendik zetorren erreforma-arrastoan eta erasmismoak bere egunik onenetan zabaldukoaren ondoren (1525-1537), garaiek eskatzen zuten hobekuntzak egiteko mentalitatea zuen 1545eko izendapenaren aurretik ere. Horregatik, iturri ezberdinetatik zetorkion erreformazaleen bere goia Kontzilioan jo zuen Lukurentzat. Kontziliondoren, ba, are egintzetarago pasa beharra zegoen.

Aspaldidaniko historia pertsonal haren ildotik, 1545eko irailean bertan sinatuta daude Gotzaindegiko erakundeak birmoldatzeko erabakiak, eta hurrengo otsailean Sinodoa bildu zuen Gasteizen, Elizbarrutiaren gobernu hoberrako oinarri juridikoak eguneratuz. Hain zuzen, Gasteiz izango zen Lukurentzat bere bigarren gotzain-hiri nagusia (Logroño-ren ondoren, baina Kalahorra bera baino lehenago). Lanari, ba, seriooki heldu zion, eta Euskal Herrian bertatik bertara, gainera (Marín 1972b: 751).

Zeregin hauek guztiek atzerarazi zioten Kontziliarako bidaiak, eta hasia zen berau Luku Batzarrera iritsi zenean, 1546ko maiatzaren 28an. Batzar handi hartako aktetan ikus liteke Lukuk zein leku izan zuen hango lanetan (adibidez, CT VII, 645-647). Honela laburtu da Lukuren Trentoko historia hori (Marín 1954a: 265):

Asistió a diez sesiones solemnes y a unas cuarenta y cinco congregaciones generales, formó parte en varias comisiones de prelados canonistas, cincuenta y cinco veces emitió voto consultivo y catorce deliberativo, interviniendo en la discusión de los siguientes problemas, sin contar otros más particulares y secundarios: el pecado original, la residencia canónica, lectura y predicación de la sagrada escritura, la justificación, la certeza de la gracia, los Sacramentos en general, la Eucaristía, Penitencia y Extremaunción, la Misa y el Orden, la reforma eclesiástica, traslación del concilio a Bolonia y su suspensión en 1552.

Ukitu zituen arazoetan azpimarra ditzagun, Bibliaren predikua zehar duen dekretugaiaren azken testuari egin zizkion oharak — berandu iritsi zelako eztabaidan parte ez hartu arren— (ik. CT, V, 226-228, 231-232: 1546-uztaila-15koa).

Sei urte luze emango zituen hiri hartan, Kontzilioa Boloniarara aldatu zenean ere hantxe jarraituz eta Enperadorearen gainerako Gotzainekin batera hasierako egoitza gordez. Boloniako tartealdiaz baliaturik (1547-1551) eta bere betiko idatz-grinak eztenkatuta, *Historia sanctorum episcoporum* (eskuizkribuan geratu zena) idatzi zuen eta, ondoren, Elizbarrutiarekiko ardurak eraginda Trenton idatzi zituen *Instrucción para los visitantes del Obispado* (1548ko urrian) eta *Carta desde Trento* deitu izan dena (1549ko urtarrilean). Horrela, gutun, liburu eta

bere mezuen bidez ahal zuen guztia egin zuen urrun utzitako Diozesiaren alde (Marín 1952: 295-296; 1954a: 315-317; 1954b: 62).

Hori gorabehera —esan behar da— Trentoko erbestealdi hark ez ziezaiokeen lagundu Elizbarrutiko lanari nahi zuen heinean ekiten, eta, hona itzultzean (1553ko otsailean), zekarren atzerapenari gaina abiamen azkarrez hartu gura izan zion, gelditzen zitzaizkion hiru urte t'erdí laburrei zuku guztia atera nahi izan balie bezala.

Etorri bezain pronto bildu zituen bi Sinodo, bata Gasteizen eta bestea Logroñon; ondoren, bi urte geroago, artean Gotzaina bizirik zela, argitaratu ziren bi Batzar haietako erabaki eta ebazpenak (1555). Oinarri orokor horren gain zehaztapen berriak eman zitzaizkion erreformari: Elizbarrutiko meza-liburua, Misericordi Etxearen arauak, etab. Ondoko hamarkadetarako funtsezko arautze-lan hau, oro har, eginda geratu zen, beraz.

Arauetatik ekintzetara pasatuz, Erreforma trentotarra hiru ildo nagusitan abiarazi zuen Luku-k: prestamen eskaseko kleroaren ezinak gainditzeko, josulagunak Euskal Herrira deitu eta herri-misioak ematen jarri zituen; klero harekin, agintari zibilekin eta kristau-herriarekin betiko urruntasunak hausteko, euskal eliz eskualdeak pertsonalki ikustatzeari ekin zion (Marín 1962: 15).

Trento aurretik eta ondoren, erreforma, hala ere, ez zitzaion samurra gertatu, politika berriak lehendik indarrean zeuden eskubideak uki baitzitzakeen: e. b., Kalahorrako Kabildoarekin tenka batean jardun behar izan zuen, eta Bizkaiko Jaurerrian ere harreman-historia neketsua zegoen, han bat-batean eskua sartu ahal izateko. Azkonak dioskunez, “el rechazo del obispo se dio en grado más agudo en Vizcaya, aunque participaban en dicha actitud la tierra de Alava y la provincia de Guipúzcoa” (Azcona 1981: 94-96; Labayru 1900: 251, 257-258, Mañaricua 1950a: 187, 189-191; 1951: 8-17; Val Valdieso 1985: 167-179; Insausti 1964: 259-276).

Gotzainaren eta Jaurerriaren arteko harreman zailek Bizkaiko Elizaren egitura sozio-instituzional erdiarrotarrean zituzten beren erroak, Ahaide Nagusiek elizen zaingoan zuten eskumenean, alegia. Hala ere, izaera zaharkitu hari gaina hartzeko Luku-ren gotzainaldia erabakiorra gertatu zen, eliz erreformaren atarian (Val Valdivieso 1985: 163, 173):

[...] a mediados del siglo XVI se operaría el milagro de que Vizcaya aceptara al obispo que siempre se había negado a admitir, contribuyera a hacer nacer al apóstol de la Contrarreforma, San Ignacio de Loyola, y se dispusiera a acoger la doctrina elaborada en el Concilio de Trento. Todo ello sin perjuicio de que el primer obispo al que se deja entrar en el Señorío, don Juan Bernal Díaz de Luco, tenga que lamentarse a San Ignacio de la incultura religiosa del área vascongada de su diócesis.

Oztopoak oztopo, Apezpikuak suharki ekin zion, ikustaldi pertsonalen bidez, Trentoko Erreforma zegokion Euskal Herrian ere ezartzeari. Luku Araba, Bizkai eta Oñati aldeetaraino iritsi zen bisitaldi

haietan. Eliz egituretara ez ezik (kleroaren erreforma) herri-herriarengana ere hurbildu nahi izan zuen Lukuk, eta horretarako bere adiskide San Ignaziori eskatu zion laguntza, josulagunetako batzuk bere Euskal Herrira prediku- eta misio-lanetara bidal zitzala galdutuz.

Trentoko Erreformaren egitarauak gogo eta bihotz onak aurkitu zituen Gotzainarengan, Euskal Herria bere balio kulturekin —eta hizkuntzarekin ere— aintzakotzat hartu ahal izateko. Hain zuzen, alde hauxe da hemen berezikiago azpimarratu nahi duguna: Lukuk, bere eliz artzain-eginkizunetan, euskarari izan zion itzala, eta beronekiko erakutsi zuen jarrera.

Joan Bernal Diaz de Lukuk Kalahorrrarako bidea hartu zuenean, bazekien nora zetorren: amaren sorterrira itzultzen zen semea. Gotzain berriak bere familiarteko eta herritar euskaldunekin egin zuen topo. Amaren hizkuntza zen euskara, seme eusko-sevillarrarentzat. Eta nork daki, hurbileko zerbait, seguraski.

Hizkuntzen testuinguruan

Lukuk maitea zuen hizkuntzen mundua, eta badirudi, gainera, denbora batez hizkuntza klasikoen irakasle-lanetan ere ibilia zela (Labayru 1900: IV, 239; Alamo 1949: 300; Marín 1972b: 750). Nolanahi ere, batez ere bere ikasturteetan (1510-1525) leku zabala eman zien latin eta grekoari ez ezik hebraierari ere (Marín 1952: 269). Gauza bera iradokitzen du haren bibliotekan aurki zitekeen hainbat liburuk, autore klasikoena batzuk, Ernazimentuko humanista klasikozaileenak besteak; jada esandakoen zerrenda osatzeko hona izeneak: Zizeron, Ovidio, Seneka, Plutarko, Plinio, Suetonio, eta Petrarka, Piccolomini, Budé, Etienne, Erasmo, Vives.

Gisa beretsuan, garaiko hizkuntza biziak ere gogoan zituen. Haren liburutegi berean bildu ziren beste obra hauek ere: *Vocabularium quinque linguarum, latine, italice, hispanice et alemanice* bat (Nuremberg, 1529), beharbada Europako ibilaldietan lagundu ziona, eta jabearen eleaniztasuna erakusten duten besteok: *Librillo en francés, Obras en italiano de la doctrina cristiana, Un libro en francés en ochavo de pliego* edo *Tratadillo en seis lenguas*. (Marín 1952: 273-275; 1954b: *passim*, 82-84).

Nabari agertzen da, ba, hor bigarren mintzaira edo beste hizkuntzekiko izan zezakeen irekitasuna. Agian, bere inguru sozio-kulturean ikus zitezkeen pentsamolde eta jokabide linguistiko kontrajarrien artean (1492-1530) askatasunaren eta errespetoaren aldeko hautapena eginik zuen Lukuk. Trenton entzundakoek ere emango zioten zer pentsa.

Kontzilioan, oro har, entzungo ziren iritzi elkarren aurkariak gorabehera, espainolek berek jite ezberdinetako jarrerak erakutsi zituzten Batzar hartan: Bibli itzulpenei buruzko Pacheco-ren hertsitasunaren ondoan (1546), tokiko hizkuntz esperientzia pastoral zehatzen aurrean zabalkiago jokatu nahi zuten erabilpen-proposamenak

**EUSKARAREKIKO
IDEIAK ETA
JARRERA**

aurki daitezke geroago (1562). Izan ere, Gaztelako bi hizkuntz tradizio eliztar agertu ziren han buruz buru: Granadako moriskoekiko Talavera kardinalaren irekitasuna, eta, aldiz, Cisneros-en jokamolde bortitza (González Novalín 1980: 379-380; Intxausti 1993: 73).

Latina gaudituz, abian zetorren gaztelaniazko katesi herritarra ere ezagutzen zuen, noski, Bernal Doktoreak, eta tradizio herritarrago horri arabiera bera ere errespetatzera ausartu zen beste tradizio hura gehitzen bazitzaion, errazagoa zen agian euskara ulertu ere egin zezakeen Gotzain batentzat gaztelania ez zen beste hizkuntza batez susmo txarrik gabe baliatzea, katekesi-predikuetan bederen. Susmo txarrik gabe, eta baita adeitsu ere.

Hizkuntzekiko irekitasun hau, prestakuntza juridikoa eta gobernu-esperientzia —denak batera— zituen Díaz de Luku Gotzainarekin, Kalahorrako Elizbarrutia bihurgune historiko batean aurkitu zen, eta Euskal Herria ez zen hortik kanpo geratu.

Euskal Herriari begira

Diozesiaren historia egitean, besteak beste XVI. mendez zera idatzi da: “se da cara decidida, sobre todo a partir del obispo Díaz de Luco, al problema espiritual de la región vascongada” (Marín 1972a: 307). Herri euskaldunetako Elizaren erreforma-premia nabaria zen, kleroarenetik hasi eta herriareneraino, Araban bezala Gipuzkoan edo Bizkaian (Azcona 1981: 97-99, 103-105; Muro Abad 1994: 56-59, 65, 79).

Etorriko ziren ondoko lanei aurrea hartuz, Elizbarrutira iritsi eta berehala sinatu zuen “Escritura de capitulación y concordia con el Señorío de Vizcaya” deitua (Mañaricúa 1951: eraskina; Labayru 1900: IV, 239, 242, 766-768). Jokamolde honek zerikusi gutxi zuen aurreko mendean bizi izandakoarekin: izan ere, gogorarazi izan den bezala, 1453-1503. hamarkadetako bost Gotzainak “es seguro que ninguno de ellos pisó su diócesis en la “parte del vascuence”” (Azcona 1981: 94), nahiz eta egoera hori Gotzainen utzikeriez bakarrik ez gertatu (Val Valdivieso 1985: 169-170).

Baina ez zen Bizkaia soilki bere artzain-zereginetan zaindu behar zuena, Araba eta Gipuzkoako mendebaldea ere bere ardurapean zituen, eta, horri erantzunez, Lukuk burututako lanetan, Elizbarrutiko Euskal Herriari zegokionak muntarik handiena izan zuen, gotzainaldiko urte laburretan (Marín 1952: 275-276; 1954a: 319-320):

Esos trabajos [herri-misioek eta josulagunen bidezko lanek, alegia] tuvieron particular importancia, siendo D. Bernal el primer obispo que pensaba eficazmente en sus intereses espirituales. [...] Y en su testamento consiguió [=consignó] el Obispo quinientos ducados para el colegio y casa de la Compañía en Oñate, encargándoles “que tengan memoria de hacer fruto en la tierra vascongada de mi obispado”. Personalmente consta que pasó temporadas en la ciudad de Vitoria, visitó con detención los arciprestazgos de Vizcaya y Oñate, interesándose especialmente por los problemas eclesiásticos y espirituales de la villa de Bilbao. (Azp. nirea).

Elizbarrutiaren erreformak berarekin zekarren erakunde-egiturak indarberritu beharra, eta, nola ez, fededun herritarrekiko harreman pertsonalatuagoak azkartu premia. Horretarako predikua eta katekesia ez zen orduan, erreforma-giro berrian, asmatu zen zerbait, jada bere tradizioa ere bazuena baizik, kateximak, adibidez, ezagunak baitziren lehendik ere (García Fernández 1992, 1994b; Sánchez Herrero 1986, 1988).

Hala ere, erreforma bere helmuetara eramateko, tradizio hori bizkorrarazi eta hobetu beharra zegoen, eta inguru sozialera egokitu, baita kristau-heziketan hizkuntz hautapena ere gogoan izanik, Iruñean bi mende lehenago Barbazan Gotzainak bere kateximan (1354) latinetik erromantzerara jauzi egin zueneko arrazoi beretsuengatik (Goñi Gaztambide 1979-1985: II, 152):

Por ende... avemos ordenado et delivrado fazer una breve suma et compilatione en lengoa vulgar et maternal porque los dichos rectores vicarios et capellanes algunos de los quoaales non saben latin puedan claramente entender los articulos en la dicha suma de suso escripta contenidos. (García Fernández 1994b: 31, 6. oh.).

Barbazan-enean eliz arduradunei buruz idatzitakoak, areago balio zuten XVI.ean, herri-herri euskaldunarentzat, eta are gehiago oraindik katekesi mintzatuan. Argi zegoen Gotzainarentzat, prediku eta kristau-heziketa euskal gizartearen errealitate kulturalera —euskaldungoari— egokitzea ezinbesteko erreforma-eskakizuna zela, lurralde euskaldunean.

Kalahorrako Elizbarrutiko pastoraltzaren egokitzapen euskaldun hauxe izan zen, seguraski, Lukuren ekarpenik jatorrenetakoa (eta Trento aurretik ere pertsonalki sustatua), nahiz eta ezer gutxi dakigun beronen ondoko segidaz (1556-1600).

San Ignazio Loiolakoarekin harremanetan

Erabaki horren ondorioz, Indietako misioez jardutean bezala, Luku berriz ere San Ignazio Loiolakoarekin harremanetan jarri zen. 1545-1552. urteetakoa da Euskal Herriaz eta euskarazko eliz lanaz diharduen bien arteko eskutizketa. Gutuneria honen berri aspalditxotik dakigu, izan ere *Monumenta Historica Societatis Iesu*-k 1898-1911.etan eman baitzituen argitara (=MHSI), bi multzotan: *Epistolae Mixtae* sailean, eta *Monumenta Ignatiana*-n(7).

Luku-k San Ignaziori idatzitako gutun-multzoa ezagutzen dugu, Lagundiko Artxiboetatik bilduta; bide beretik, zazpi dira, gutxienik, San Ignaziok Lukuri idatzitakoak. Euskal Herriaz nahiz bestez diharduten eskutitz guztiek hamarkada oso batean zehar luzatu ziren, 1543tik

(7) Aita Ignazio Zavala Loiolako Biblioteka Ignaziotarraren liburuzainari nire eskerrona zor diot hemen, lanerako eman dizkidán erraztasunengatik.

1552raino; bestalde, eskutitzetatik kanpo, *MHSI* horietan bada harreman haiekiko zeharbidezko edo alboko beste albiste llaburrik ere.

MHSI-en lehen argitalpen horren ondoren, egia esan, zerbait begibistatik galduta ibili dira eskutitzok, batez ere euskalari nahiz euskaltzaleontzat: Malaexechevarria-ri zor diogu azpimarraketa llabur bat (Malaexechevarria 1926: 27-29, 31, 606-607), eta geroago Mañarikua-k utzi zigun antologia zabalagoa, arestian aipatutako Bizkaiko eliz historia hartan erdi-galdu zaiguna (Mañaricua 1950a: 187-193).

Besteak beste, Lopetegik —San Ignazioaren euskalduntasuna osoenik aztertu duenak— ongi azpimarratu du, alde honetatik, Luku-erekiko harremana, eta eskutitz-trukaketa hartan hizkuntzaren ardurak izan zuen lekua ere (Lopetegi 1961: 64-66). Gisa berean, orain hemen, Luku-ren mendeurrenak egokiera aproposa dakarkigu hizkuntzaren historiari dagozkionak berri eta osatzeko.

Garaiko iturriek behin eta berriz gogorarazten digute bi pertsonaia hauen arteko, eta Gotzainaren eta Lagundiaren arteko, adiskidetasuna eta elkarren estimua. Antonio Araotz Lagundiko Probitzialak honela idatzi zion San Ignazio-ri Valladolid-etik Erromara, 1545eko martxoan (*MHSI/Epist. mixt. I*, 202-204):

El Obispo de Calahorra nuevamente electo, que es el Doctor Vernal, de V. R. muy amigo, de la Compañía zelador, y mi muy antiguo devoto, con mucha ynstancia nos pide para coadjutores y cooperarios, saltem ad tempus, para su dyoçesy; viendo en nosotros depender de V. R., pienso ará confiado recurso.

Luku-rengan, Lagundia are finkatuagotzeko abagunea ikusi zuen San Ignaziok, izan ere Gotzain honen bidez proposatu nahi izan baitzuen Elkarte Kontzilioan bertan ere birretsia izatea (*MHSI/Polanci Chronicon II*, 254-255). Gisa berean, Apezpikuren onginahiak, Lagundia Euskal Herrian errotzea ekar zezakeen, eta, testuinguru horretan, bere sorterriko fededunak indarberritzen laguntzeko parada eman zion Lukuk Loiolakoari. Aldiz, Luku-ri, bere erreforma-asmoak haragi-gorpuzteko giza baliabide trebatuak eskain ziezazkiokeen Ignazio Loiolakoak. Adiskidetasunak bazuen, ba, bere alde praktikorik ere. Hori horrela, Lukuk harekiko adiskide-agerpenak ez zituen Elizbarrutira mugatu, eta josulagunak Trentora agertu zirenean —teologo nahiz ikasle gazte— Kalahorrako Gotzainaren babes osoa izan zuten, babesa, laguntza eta aholkua (Polanco 1894: II, 254-255, 268, 429; Marín 1954a: 309-312).

Une hartako zenbait euskal pertsonaia goren —elkarrekin harremanetan zirenak, eta gisa batean nahiz bestean Luku batera-puntutat zutenak— Euskal Herriko Elizaren hobekuntzaz elkarren artean arduraturik ikusten ditugu: San Ignazio eta Araotz, Zumarraga eta Luku. Laster izango ziren Lagundiarekin harreman horietan Iruñeko Fonseca Gotzaina, Nafarroako Frantzisko (Ciudad Rodrigo-ko Apezpikua eta Orreagako Abade ohia, alegia) (*MHSI/Epist. mixt.: I*, 225; Thalamas 1970).

Hortaz, Kalahorra eta Iruñea: Euskal Hegoalde osorako berritze-asmoak zeuden, ba, tarteko. Bi gotzain-hirietatik izan zuten Apezpikuen

deia josulagunek, Nafarroatik Bizkairaino herrien heziketa kristauari hel ziezaioten (MHSI/*Borgia*: III, 134-135; Polanco 1984: 341-345);

Horrela, ba, ez da harritzekoa Frantzisko Borjakoak ere —hemen predikari gisa zebilenak—, Gotzaina Trentotik itzuli berria zela-eta, San Ignaziori zera idaztea (MHSI/*Borgia*: III, 133):

Después de la que á V. P. escreuí el mes pasado, lo que se ha ofrecido de que dar aviso es, que el señor obispo desta diócesis es venido á ella del concilio avrá XX ó XXV días, que no ha sido poco bien para esta tierra, según la necesidad [que] tenía de su pastor. (Oñatitit, 1553-02-28an).

Gotzaina, euskaldungoaren zerbitzuan

Lukuk, bere lehen deia egitean gatzigatu zuen bezala, misiolari eta predikari berriek euskalarekin topo egin zuten, herri eta auzoetara irten orduko. Inguru euskaldun horretan, bakoitza ahal zuen modura moldatu zen. Aita Araotz edo Otxoa bezala euskalduna zenak, euskarari helduz, eta erdaldunek, behar eta ahal zenetan interpretariak bilatuz.

Jakin badakigu Borja-ren lehen Mezan nolako jendetza bildu zen Bergaran (1551ko azaroaren 15ean: 12.000 lagun?), eta pertsonaiaren sonak erakarrita erbestetik Oñatira zetozkion handikien ondoan hemen bertoko herri xumea ere inguratzen zen, nonbait, Konterrira, eta Borja bera irten ere egin zen prediku-lanetarako, Bilbo edo Gasteiz bezalako hiri handietara ez ezik, Elgeta bezalako txikieta ere (Astrain 1902: I, 314-320). Hona, labur-labur, hilabete haietan ikustatu zituen herriak, Otxoa josulagun nafarraren arabera: Bergara, Arrasate, Segura, Bilbo, Oñati, Azkoitia... (MHSI/*Litt. quadrimestres*, I, 490-495; Dalmases 1983: 93-95).

Baina herri txikietan apenas zegoen erdara ulertzen zuenik, eta zalantza bat baino gehiago izan zuen Borjak prediku-lanari erdaraz ekiteko, “por no ser entendido el castellano entre el vulgo de aquella tierra” (Astrain 1902: 316; MHSI/*Litt. quadrimestres*: I, 557).

Holakoetan, interpretariaren bitartekaritaz baliatu zen apaiztu berria. Badakigu euskaratzailearen izena ere: Hernani Lizentziatua; berau izan zen haren Oñatiko egonaldian eta inguruetakoko predikueta hitzaldiak euskararitzen zizkiona, herri xume euskaldun elebakarrak uler zitzen (MHSI/*Mon. Ign. Ser. I*: III, 431). Polanco-k dioen bezala (Polanco 1894: III, 340):

(...) quidam etiam licentiatius Hernani, theologus, et natione cantaber, Patrem Franciscum Borgiam comitari solebat, et in cantabrica lingua populo rudiori conciones ejusdem Padris, quas in castellano idiomate habebat, vulgo non intelligenti hoc idioma, in cantabrico ipsis vernaculo declarabat.

Hernani Lizentziatua Zumaiako Bikarioa zen, Lagundian sartuko ez sartuko zebilena, jaiera eta jakitate handiko apaiza, Bizkaian ere fruiturik franko emana, eta handik hilabete gutxitara Lekeition hil zena (MHSI/*Epist. Mixt.* III, 597-598, 4. oh.).

Predikari euskaldunek, noski, erraztasun hobeaz zuten euskaldungoarengana iristeko; horrela, Ubillos mutrikuarra eta Otxoa nafarra elkartuta ibili ziren, predikuak egin eta dotrina irakasten. Ubillos-ek berak nahikoa luze eman zion Polanco-ri, Lekeitio, Markina, Oñati, Eibar, Ermua, Bergara, Arrasate eta Azpeitian egindakoaren albistea. Guztia emaitza honela laburbildu zuen Ubillos-ek (*MHSI/Epist. Mixt.* III, 282-285):

Sabrá V. R. [Polanco-k, alegia] que ha quinze meses que he andado con el P. Miguel [Otxoa], enseñando la doctrina xpiana. em bascuence, en Vizcaya y Guipúzcoa, donde por la misericordia y bondad de nuestro Señor han aprendido tan bien, que es para alauar á nuestro Señor.

Hortaz, predikuari ez ezik kristau-ikasbideko lanei ere ekin zitzaaien orduan euskaraz. Euskaraz egite horri balio gehigarria ikusi izan zitzaion, nonbait, zeren hilabete batzuk lehenago Aita Gou-k Valladolid-etik San Ignaziori gauza bera adierazi baitzuen (*MHSI/Epist. Mixt.* IV, 47, 1554-01-25ekoa):

En todas las partes donde hay gente de la Compañía por acá, se sirue mucho N. S., y se hace muy grande fruto en las almas. De Oñate scriuen que enseñan la doctrina xpiana, en aquella lengua los domingos y fiestas.

Lehen pausoetarako ez ziren esperientzia txarrak, jendeak samaldaka erantzuten baitzuen, lekukoek esaten digutenez; baina eliz zereginetarako euskararen premiaz ez zen Luku lehenengoz jabetu josulagunen edo Borja-ren predikuen emaitzengatik (1551-1554). Lehenagotik zekarren horren kontzientzia Gotzainak, berehala eta geroago ere ikusiko dugunez.

San Ignazio eta Luku-ren arteko gutunetan eskura dugun lehenengoa hark honi 1543ko urtarrilaren 16an idatzitakoa da, eta, aurreko gutun bati erantzunez, Espainia eta Indietarako josulagunen lankidetzatza pastoral bati buruz orokorrean dihardu, besterik gabe, artean ez baitzen hemengo Elizbarrutiko Gotzain (*MHSI/Mon. Ign. Ser. pr.:* I, 239-242).

Hemen gurerako argigarria dugun Luku-ren lehenengo gutuna, ordea, Gotzain izendatu bezain pronto izkiriatur da, eta Lukuk Euskal Herrira Apezpiku etorri aurretik ere ezagutzen zuen egoera soziolinguistiko bati erantzun nahirik agertzen zaigu. Esan dugunez, 1545eko uztailearen 5ean egin zuen sarrera Kalahorran, baina San Ignaziori idatzitako ondoko testu hau urte bereko apirilaren 10ekoa du (*MHSI/Epist. Mixt.:* I, 210-211):

Y como yo sé quán sancta y sana es la [doctrina] que enseñan todos los de la Compañía de V. m., ternia por gran felicidad, si V. m. encargase á alguno ó algunos della, que me ayudasen á doctrinar el Obispado. Y por esto, cuan afectuosamente puedo, le pido por merced, que haga tan gran limosna á aquella tierra, y á mí tan gran caridad y socorro spiritual, que me embie alguno de sus compañeros, que me ayude, speçialmente de los bascon-

gados; pues V. m. sabe bien cuánta necesidad tiene aquella tierra, donde se habla esta lengua, de buena doctrina [...]. *Y pues V. m. en ley de charidad deue más á aquella tierra que á otra alguna, justo es que no falte en esto, especialmente en tiempo que el Prelado della la pide y desea.* [Azp. nirea].

Trento-aitzinetik zegoen, beraz, aurrikusita euskaldunen arteko pastoraltza euskaraz nahi zela egin. Utzikeria triste batekin hautsi nahi zuen, ba, Lukuk, garaiek eskatzen zuten zerbitzu jatorrago bati bide emanez. Eta, itxuraz, eliz hizkuntz erabilpenekiko honetan, Gotzaina ez zegoen bakarrik.

Euskarazko prediku horiek baino zerbait ausartagorik ere eskatu zen urte haietan Euskal Herrian (1539), kalonjeek Iruñetik Gotzain euskalduna behar zela Enperadoreari idatzi ziotenean (Goñi Gaztambide 1955). Kezka horrek pastoral-zeregin arruntei ez ezik eliz gobernuko egituren ajeei begiratzen zien. Izan ere, historilariaren kostatazio hau ukaezina baitzen (Azcona 1981: 97):

En la provisión de obispos para estas sedes [Iruñe-Kalahorra-koetarako, alegia] se tenían en cuenta diversas previsiones de buen gobierno; pero no la pastoral de que fuesen nativos y supiesen hablar el idioma de su tierra. (Azp. nirea).

Inondik ere, Luku-k ulertu zuen jokabide horien alde ahula, eta, pastoralean bederen, aintzakotzat hartu nahi izan zuen errealtate soziolinguistikoa. Josulagunak nahi zituen, beraz, baina bereziki josulagun euskaldunak, gutun hauen argitaratzaileen oharrak ere azpimarratzen duen bezala: "*Episcopus ab Ignatio socios postulabat, quibus illa [Cantabrorum lingua] esset familiaris*" (MHSI/Epist. Mixt.: I, 210, 2 oh.).

Sorterriari zor zaion jaietaren izenean eskatzen zuen, gainera, hori Gotzainak (eskutitzetan behin eta berriz aipatzen da, "aquella tierra", halako atxekimendu biozkor batekin) (MHSI/Epist. Mixt.: I, 210; V, 720; Mon. Ign. Ser. I: III, 108). Ideia bera, kasik modu berean, aurkeztu zion Luku-k Ignazio-ri Aita Araotz euskalduna Bizkairako eskatu zionean ere (MHSI/Mon. Ign., Ser. I, XII, 403):

En lo de Vizcaya yo espero que no le faltará su caridad, pues se a extendido á provincias tan extrañas. Recibiría merced que encargase al doctor Araoz que siempre predicase, quando pudiese por aquellos pueblos de my diócesis donde se hallase, pues ellos tienen tanta necesidad y él es tan obligado.

Nolanahi ere, San Ignazioarentzat ez zen samurra Gotzainaren eskeari erantzutea, 1545eko hondarretan adierazi zion bezala (MHSI/Mon. Ign., Ser. I: I, 313).

Predikuetatik aitzina, pauso berri bat emanez, katekesia ere behar zen. Honela laburtu zuen hark kristau-dotrinaren premia zuen ustea, Loiolakoari zera esan zionean (MHSI/Mon. Ign. Ser. I: XII, 403):

Yo trabajo que en my obispado se enseñe la doctrina xpiana. á los niños, y creo, cierto, que es la obra más importante que se

puede agora hazer, de las que son de tanta facilidad, para ayudar a la reformatión del pueblo y institucion de los xpianos.

Logika horretan hizkuntzen erabilpenaren alderdi pastoralera gero eta argiago ager zitekeen, garaiko zalantzen artean, nahiz eta hizkuntzen eliz erabilerak kristau elizen arteko eztabaidakizun bilakatu ziren XVI.ean, eta berorri buruz bakoitzak bere esperientzia eta interesetarik hitz egiten zuten. Protestantismoak ekarritako Bibli itzulpenen arrakastak susmoak baizik ezin zitzaizkeen hainbat buru-bihotz kontrarreformistetan sortu, eta Trenton Pacheco kardinalaren teologo zen Alfonso de Castro-k oso argi azalduta utzi zuen hori(8). Herriarren heziketa eta alfabetatze biblikoen bidea orduan ito arazi zen, Kontrarreformaren segurtasun-beharrez.

Luku Kontziliara iritsi zenerako (1546-05-28), juxtu, herri-hizkuntzen Elizako erabilpenarekin zerikusia izan zuen eztabaida handia (itzulpen biblikoetara mugatua) igarota zen (1546ko martxo-apiriletan), baina haren oihartzunak bizirik egon behar zuten inondik ere, han ondoan zuen gotzain-talde lagunaren barnean batik bat.

Bibliaren erabilerarako hizkuntz joku-arau orokorrenak, ba, emanda eta berretsita aurkitu zituen Lukuk Trenton (gero, Luku hil ondoren, Liturgiarena 1562an arautuko zen batez ere): italiara edo gaztelania bezalako hizkuntza ofizialagoetarako balio zuten arauak ziren haiek, eta gurea bezalako mintzaira saihestuagoetarako zer esanik ez. Bibliarekiko horren ondoren, prediku-katekesien eremua geratu zen herri-hizkuntzetarako libre eta aske.

Horrela, ba, areagotuzko prediku-katekesien beharrez, Trentotik itzultzean, areagotu baizik ez zen egin Gotzainaren baitan: Bibliak eta Liturgiak, praxi katolikoan, latinez segitu behar baldin bazuten, beste eremuetan —katekesi, prediku, jaiera pribatuetan...— are premiazkoagoa zen herri-hizkuntzei, guztiei, leku ematea(9).

San Ignaziori idatzi zizkion eskutizetako ia denak Trentotik izkiriatuak dira (eskura ditugunen artean, noski), eta zazpi bederen, 1551koak. Kontzilioaren azken hilabeteetan, San Ignaziorekiko harremanak bizkortu egin zituen Lukuk; esan bezala, Trenton josulagunei eman nahi zien laguntza eskainiz, Euskal Herrirako Lagundiko indar euskaldunak biltzeko asmoz, eta batez ere “vascongados” hitzez izendatzen zituen euskaldunen mesedetan (*MHSI/Epist. Mixt.*: III, 124; IV, 284; V, 720).

Bost urte t' erdi lehenago esandakoak errepikatu zizkion Loiolakoari, 1551ko urtarrilaren 31n idatzitakoan, osterara ere sorterritarrekin

(8) Pacheco-ren nortasunaz ik. *Dicc. Hist. Ecl. de España*, eta haren Iruñeko gotzainaldiaz: Goñi Gaztambide 1978-1985: III, 299-341. Bibli itzulpenen aurkako Pacheco-ren iritzia atzean Alfonso de Castro zegoen, teologo bezala. Zuzenbide Penalaren sortzaile eta Enperadorearen predikari frantziskotar honen azalpen historiko-dogmatiko-linguistikoak eredu-garriak dira Kontrarreformaren jarrera politiko-linguistikoak ulertzeko, eta berdin beste zenbait elizgizonek (Zumarragak, adibidez, lehentxeago bederen) izandako bestelako joerak beren testuinguruan lekutzeko.

(9) Ez dezakegu hemen Trentoko hizkuntz politikaz beste zertzelada eta ñabardurarik eman. Agian izango da, horretarako, aukera egokiagorik.

gogabera izan zedila eskatuz, berauek zituzten hizkuntz baldintzak gogoan hartuta (MHSI/Epist. Mixt.: V, 720):

Yo creo bien que V. m. no tiene olvidadas las ánimas de su naturaleza [jatorri berekoak, alegia]; pues entre las otras de todo el mundo (de cuya saluación tiene mucho desseo) tienen esta particular razón para que V. m. se acuerde de ellas, mayormente estando tan ynformado, como está, de la gran necessidad que en aquella tierra ay de doctrina, y de la imposibilidad que ay para que allí se pueda plantar, sino por personas naturales de la mesma lengua, y de la falta de eclesiásticos vascongados [euskdunak, alegia] que puedan y quieran aplicarse á predicar por aquella tierra. Y aunque yo tengo todo esto por cierto, por lo que en ello me va no puedo dexar de tornar á encomendar a V. m. que, por amor de nuestro Señor, no pierda el cuidado de hazerles bien [...], pues no ay en el mundo prouincia á quien sea tan obligado; y es cosa justa que ganen aquellas ánimas en auer nuestro Señor criado en sus tiempos vn varón de tanta charidad y zelo, natural de la misma tierra. [Azp. nirea]

Trentotik Elizbarrutirako bidean zela —berehala bertatik bertara arteztu beharko zuen lanari ekiteko bezperatan— bere gogoa berrito azaldu nahi izan zion San Ignaziori Lukuk, Milandik idatzi zion eskutitz honetan (1552ko uztailaren 6an) (MHSI/Epist. Mixt.: V, 755-756):

Muy gran merced recibiré que scriba V. m. al doctor Araoz [josulagunen hemengo Aita Probintzialari] y al duque [Frantzisko Borjakoari], para, quando fuere venido, que tengan particular cuydado de hazer ocupar los clérigos, que tuuieren doctrina, vascongados, en predicar en su lengua las más vezes que pudieren, y repartiéndose por la tierra, pues sabe V. m. la necessidad que ay en ella de doctrina, y la falta de personas que se puedan y quieran ocupar en ello. [Azp. nirea].

Ikusten da, ba, Gotzainak bazekarrela euskarazko kristau-heziketa herritar baterako gogoa ez ezik proiektua ere, eta hona iritsi orduko giza baliabideak prest nahi zituela ukan. San Ignaziok ez zien entzungor egin Gotzainak errepikatutako arrazoiei, eta hemengo egoera linguistikoari eman beharreko ihardespen egokiaz otsailean Erromatik honela erantzun zion goian jaso dugun 1551ko urtarrilekoari (MHSI/Mon. Ign. Ser. I: III, 319-320):

Y á la verdad, haze por todos V. Sría. en ser ángel de los vascongados (á quienes no se puede negar que tenemos particular obligati6n de compadezer y ayudar), como antes lo era V. Sría de las Indias, quando también auía particulares respectos de serlo [...]. Quanto al effecto de lo que V. Sría me manda y encarga, en esta parte yo he hecho lo que he podido para que fuesen algunos de la mesma lengua, y otros que sin ella mucho podrán ayudar á la edificaci6n de las ánimas [...]. [Azp. nirea].

Gutun honek berehala izan zuen Luku-ren erantzuna, adeitsua eta bihozkorra, eskerronak emanez eta Lagundiarekiko onginahia agertuz (*MHSI/Mon. Ign.* Ser. I: III, 321-322). Bere burua Lagundiaren babesletzat zeukanez, urrats berri bat ematera ere ausartu zen Luku, San Ignaziori Lagundi barnerako gobernu-irizpide bat iradokiz, euskararena berriz ere, hain zuzen. Frantzisko Borjakoa azkenik hona badatorrela jakitean, honek Lagundia Euskal Herrian nola errotu arazi beharko zukeen esaten zion Gotzainak (*MHS/Mon. Ign.*, Ser. I: III, 561. 1551-06-04ko gutuna):

V. m. lo anime mucho [Frantzisko Borjakoa, alegia] á la perseuerancia, y á que procure recoger y dar fauor á los naturales de aquella tierra que quisieren reducirse á la Compañía, porque importaría mucho que huuiese número de vascongados en ella, para que se pudiesen embiar predicadores y confesores por la Proviñcia y por el condado de Vizcaya. [Azp. nirea].

Testu hauetako ideiak behin eta berriz errepikatuta ikustean, euskararen eliz erabilerari eta euskaldungoari eman behar zitzaien hizkuntz trataerari buruz honelako kontzientzia pastoral-linguistikoaz bada zer galdeturik. Nondik piztu zitzaion Luku-ri halako ardura? Zerk eraman zuen Luku euskaldunak horrela begiratu eta sentitzera? Arrazoi batzuk azaldu dira dagoeneko, baina komeniko da besterik ere zabalkiago agertzea.

Hizkuntz jarreraren testuingurua

Eliz zereginetan euskarari leku hau emateko gogo eta erabaki honek, arrazoi pertsonal, sozio-historiko eta instituzionalak zituen, uste dudanez. Arrazoi hauetako batzuk berriak ziren XVI. mendean, baina beste zenbait (eliz pastoraltzari zegozkionak bereziki) aspaldidanikoak zituen Elizak, hemen eta nonahi, orduan eta beti.

Arrazoi pertsonalak

Lehenik, arrazoi pertsonalak gogora daitezke. Ikusi dugu, Luku nola hurbildu zen Europa eleanitzera, eta saiatu ere bai, nonbait, hiru hizkuntza "sakratuak" ez ezik (latina, grekoa, habraiera), Mendebaldeko beste zenbait hizkuntza bizi ezagutzen. Ez zen, ba, hurrik eman ere, hizkuntzatan adimendu elebakar hertsia.

Aipatu ditugu bere amarengandik zituen familiarteko lotura euskaldunak: badirudi seme bort honek aita-amen sorterriak barne-barnetik maite izan zituela, Huelva eta Araba. Esan denez, amaren herriarekiko hurbiltasuna nabaria du, eta, hona Gotzain izendatuta etorri zenetik, are gehiago bere bizitza pertsonalean eta lan pastoralean.

Lukuren ikertzailearik onenak garbi utzi du, amaren sorterriarekiko erabateko atxekimendu pertsonal hau: hain zuzen, honexegatik ere uste izan omen da Gotzaina lukutarra zela, eta hilburukoan ere "abundan las mandas para la iglesia y personas de Luco" (Marín 1972b: 750).

Eta Luku herria guztiz euskalduna zen orduan, eta gero, mende luzetan. Maria Lekeitioko bere ama lukutarrari esker, euskara ez

zitzaion agian sekula guztiz arrotza gertatu, ezta Sevillan ere, eta zer esanik ez hain maiteak zituen Lukuko auzotar euskaldunen artean.

Familiarteko eta herriko inguru pertsonal honen alboan, On Joan Bernal-ek bazuen, ordea, mundu intelektual lagungarri bat ere bere inguruetan, humanismo kristau erreformazale eta herri-hizkuntzazalearena.

Humanismo kristaua eta herri-hizkuntzak

Ernazimentuko luma-gizonen artean, humanismo ernazentistan alegia, korronte zabal batek bere baitan izan zituen aldi berean eliz erreformazaletasuna eta hori erraz zezakeen herri-hizkuntzekiko atxekimendua.

Elizaren erreforma-aldietan —lehenago eta orduan ere— “konbertsioa” sarritan ikusi zen hizkuntzaren hautapen berri batekin lotuta, hizkuntz erabilpen irekiagoek Hitzaren mezua fededunengana samurrago helaraziko zutelakoan. Hori horrela sentitu zelako, praxia ez ezik arazoarekiko teorizazioa ere egin izan zen une haietan. XV. mendeko Bohemiako husiten artean, edo berrikitan Luter-enean ere agerian zegoen irizpidea.

Baina ez zen hori, heterodoxien burutazioa bakarrik, Elizaren barneko berrikuntza ortodoxoek ere hizkuntzaren arazo bera zuten, beren erreformei ekitean. Hemen, humanismo kristau erasmistatik urreratuko gatazka arloari, beronek Lukurekin izan zituen hurbiltasunak gogoan ditugula(10).

Luku Kalahorrara iritsi aurreko bi hamarkadetan, Erasmoren itzala luzea izan zen Penintsulan, Europako beste inongo herritan baino luze-zabalagoa. Horregatik ere —zabaltasun horretan definitu nahi izan delako, esan nahi da— ez da samurra erasmismoaren muga ideologiko-sozialak —eta, Amerika gogoan izaki, geografikoak ere— ongi marraztea, nahiz eta Bataillon saiatu den horretan (Bataillon 1966: 806-831). Lukuren erasmismoaz esan dugu zerbait, baina osa dezagun arestikoa beste daturen batekin.

Erasmus beraren edo erasmismoaren pentsamoldean, herri-hizkuntzek eliz erreforman oro har, eta eliz kulturari eta herritar xumeekiko pastoral-tzalan izan zezaketen lekuaz xehetasun guztietan ez dago hemen zertan sartu, baina zertzeladaren bat ematea argigarri izan liteke. Erasmus Bibli itzulpen herritarren alde agertu zen (1516, 1522), eta, haren ustez, herriaren hizkuntzan prestatuak egon behar zuten predikariak, horretarako hizkuntza bakoitzeko idazle eta hizlari maisuak ezagutu. Baina Erasmus bera mundu klasikoan geratu zen, latina eta grekoa lantzen, eta —idatzitakoez landa— bere bizitzan zehar sekula sermoi bat ere egin gabe, ez latinez eta ez herri-hizkuntzatan

(10) Bi ohar hona iristean: a) Zenbait euskal semeren erasmismoaz (eta horien artean Zumarraga-renaz) bada lanik (Thalamos 1970). b) Bestalde, jakitun gara durangarraren erasmismoaz-edo Adeva-k eta lankideek piztu berri duten eztabaida interesgarri eta agian interesatua; baina arazo horren azalpenak urrunegi eramango gintuzke hemen. Ik. Adeva 1994 eta 1995.

(Chomarat 1981: 148-150, 1056-1059). Ezagut daitezke jarrera horren arrazoiak.

Lehen erasmismoak, edo hobeki Erasmok berak, ez zuen uste izan batez ere eskolatuentzat aldarrikatzen zuen "erlijiotasun ebanjelikoa" herri-hizkuntzetan eman behar zuenik; hala ere, ondoko erasmozaleei zor zaie, erlijiotasun pertsonalizatuan hezitzeko, fededun xumeen heziketarako herri-hizkuntzetako hainbat argitalpen berri (Penintsularako: Bataillon 1966: 549-608). Erasmismo herritarrago honen ildo horretan zetorren Luku idazlea ere. Eta nola ez, "erlijiotasun ebanjeliko" ideial hura artzain-lan herritarerraino eramatea erabaki zuenetik!

Espanian erasmismoa behera etortzean (1537tik aitzina), eliz Erreformak Trentotik zehar Kontrarreformara zihoan bide hertsia goari heldu zion, eta Luku erasmista-ohi erreformazaleak ere bide hestuago horretan aurkitu behar izan zuen irtenbidea: Biblia edo Liturgiaren itzulpenetara ezingo zen iritsi (hau da, Luter-en hizkuntz herritartze-punturaino, esan nahi da), baina, Erasmoren funtsezko irizpideei jarraiki, latinaren mugak hautsi beharra ikusi zuten eguneroko lanean, eta zer esanik ez, prediku edo katekesi mintzatuak herritar xumei eskaini nahi izan zitzaizkienean.

Humanismo herri-hizkuntzazalea bi Kontinenteetan zegoen bizirik, eta prezeskiago humanismo erasmista ere bai. Eta hemen dakargun historia honen arrastoan bada hurbileko daturik. Zumarragak — Lukurekin 1530.eko hamarkadatik harremanetan zegoen misiolari durangarrak — eman diezaguke Atlantikoko bi aldeen arteko harreman kultural hauen harat-honataren aztarna on bat. Eta interesgarria da guretzat, zeren biak erasmismoaren eskolatik dastatuak ziren, ebanjeliaz, eta Zumarragak ere bere Gotzain-lanean hizkuntz arazoak bete-betean baitzituen. Ikus dezagun horren albistea.

Zumarragak, hil aurreko hilabeteetan Mexikotik Penintsulara liburu-sorta bi bidali zituen, eta lehenago Ameriketara eramandako liburuetako batzuk Europara itzularazi. Harrera-oharretik jakin dezakegu (1548) zer zen sorta haietako batean zetorrena, eta norako zen hura dena (Bataillon 1966: 823):

los libros que el Señor Obispo enbía para el provincial Fr. Francisco del Castillo [Kantabriako frantziskotarren nagusia berau, eta, itxura guztiz, durangarra hau ere, Zumarraga bera bezala] *titulados de su letra, para que el señor provincial los tenga quanto quisiere e después los entregue a la deuota casa e monesterio de Arançaçú, que son por todo catorze libros con las obras de Herasmo, los quales son enquadernados e titulados por el mesmo Señor Obispo.*

Inondik ere, Erasmoren "idazlan guztiak" ziren hamalau liburukote haiek. Eta Zumarragaren behialako bidalketan, Erasmorenekin batera "un archa llena de *Doctrinas breves* pertenescientes a la santa fee cathólica compuestas por el dicho Señor Obispo" etorri zen (1543-1544.etan argitara emana). Hain zuzen, hauxe zen, Apezpikuek aginduta, Molina-k 1546an ia bere hartan mexikeraz kaleratu zuen

kristau-ikasbidea. Lukuren adiskide honen bidalketa horretan, etsenplu on batean, humanismo kristaua eta pastoraltza-liburu itzulgarria eta ordurako itzulia ere batera agertzen zaizkigu (Gómez Canedo 1977: 171; Castro 1988: 499).

Berehala esango direnak gorabehera, bi pertsonaien humanismo kristaua azpimarratzeko balio du honek. Ameriketako holako bidalketak ez ziren harritzekoak Penintsulan, neurri batean han ere hemen lehendik ikusitako eredu edo irizpideez baliatuz ari baitziren. Eta alderantziz: Mexikotik zetozen albisteek mirespenik handienak pitzen zituzten urte haietan Europako elizgizonen artean.

Zumarragaren eskutizketa pribatutik ezagutzen dugun joan-etorri hau(11), are aberatsagoa zen, ofizioz eta halabeharrez, Indietara begira lan egin behar izan zuen Luku bezalako kontseilukide baten inguruan. Horretaz esan nahi dugu zer bait.

Ameriketako eredu berri(tu)ak

Honek guztiak beste testuinguru historiko azkar eta zabalera garamatza. Lukuk Euskal Herrian landatu nahi izan zuen zuhaitzak zuzter hedatuak zituen munduan, orduantxe indar berriz zabalduak. Eta Eliza katoliko erromatarra bera zen berrikuntza horren eragile, nahiz eta Elizaren periferian —Indietako misioetan— hemen bertan Europan baino azkarragoak izan horren azalpenak. Dakigunez, misio-gertakari hori oso bertatik segitu ahal izan zuen Lukuk, gainera.

Indietako Kontseilutik begiratuta Amerika ez zen zer bait urrunekoa eta arrotza: Kontseilura etortzen ziren Ameriketako arazoak eta gizonak, bertatik hartzen ziren erabakiak, eta handixe irteten konkistari eta misiolariak. Elizarekiko Erret Zaingoaren betekizunak ere hortik zaintzen ziren, eta, beraz, baita Ameriketako Gotzainen izendapenak ere.

Badakigu, Aspurz-i esker, Kontseiluan lan egin zuen urteetan, Indietako misioekiko zuzeneko ardura izan zuela Lukuk: “sabemos de la actuación de este celoso Consejero, que, a lo que parece, debía de tener por encargo propio dentro del Consejo el promover y organizar las expediciones de misioneros” (Aspuz 1946: 95, 2. oh.).

Kontseiluan, Luku-ren egitekoa izan zen Ordena erlijiosoak Ameriketako misioetarako sustatzea, eta On Bernal-i zor dizkiogu Ordena horietako Batzar Nagusiei zuzenduriko eta oihartzun handiko gutun batzuk (frantziskotarrei Tolosako Kapitulura: 1532; eta hurrengo urtean Ordena guztiei bidalia, eta 1538an Aita Santuari josulagunak eskatuz eta 1542.aren azkenetan asmo berarekin San Ignaziori zuzendua). Sustapen-ekimen hauetan Errege-Erreginekin batera ari zen Kontseilukide hau (Civezza 1857-1895: VI, 568-570; Aspuz 1946: 95, 100, 103, 110).

(11) J. Mallea-Olaetxek eskaini dio azterlan interesgarria Zumarragaren mundu pribatu horri: “The private basque world of Juan Zumarraga, first Bishop of Mexico”, in: *Revista de Historia de América*. Mexico: Instituto Panamericano de Geografía e Historia. 1992, 114. z., 41-60. lk., gainera, autore beraren besterik: *Euskera*. XXXIV, 1989-1, 311-319.

Luku Kontseiluko arduretan zebilela etorri zen Zumarraga Mexikotik, hain zuzen Ameriketako misio handien eta begiratueneko burua. Mexikoko albisteak, herriz herri zebiltzan (Espainiatik Italiara, eta Flandes-tik Alemaniara, edo Veneziatik Frantziara, etab.), eta komentuz komentu, joandako lagunen berriak eta balentriak hedatuz, eta, bide batez, indar berriak eskatuz. Esan dezagun, misiolari berriak biltzeko propaganda-arduraduna ere Luku izan zela, eta horretan giroak ere aski lagundu zion (Aspurz 1946: 102):

Por todas las Provincias de Europa circulaban entre tanto las cartas y relaciones de los misioneros describiendo los triunfos sobre la idolatría, el fervor y la sencillez de los neófitos [...]. Era ya un tópico la idea de que Dios quería compensar a la Iglesia con las conquistas de la fe en el Nuevo Mundo de las pérdidas sufridas por causa de la herejía.

1533an, elkartu egin ziren Zumarraga eta Luku, biek batera ekintza sonatu bat aurrera eramateko: gutun banatan Eskekoei eta Ordena guztiei egin zieten Ameriketarako deia, eta itxuraz ez Penintsulakoei bakarrik, latinez eman baitzuten idazkia (Aspurz 1946: 100-101; Marín 1952: 300). Testuinguru honetan, Lukuk adiskide izan zituen Las Casas edo Vasco de Quiroga-ren gisako misiolari eta teorikariak.

Bakoitzari bere ñabardurak ukatu gabe, Bataillon-ek humanismo-korronte berean ikusi ditu izenok, eta antologia berean bildu Xirau-k (Xirau 1973). Elizaren inkulturazioaren arreta, gaurko molde teorikoetan ez bazetorren ere, Kontinente Berriko Misioa pauso bizkor eta aurrerakoiak ematen ari zen Mexikon, inork baino hobeki Aita Jeronimo Mendieta gasteiztarrek kontatu zigun bezala (Mendieta 1973: I, 132-134, 136-137; Baudot 1983: *passim*).

Hainbat monografia zabaletan ezagut litezke gaur misiolarien orduko gramatika- eta hiztegi-lanak, eta hango jatorrizko hizkuntzetan paraturiko katexima eta eliz liburuak (12). Espainia Berrian misiolariak katekesi-lan gaitzari buru egin behar izan zioten, eta handikiro egin ere: Ikusi dugu Frai Joan Zumarragakok argitararazi zuen kristau-ikasbide mexikak (1546), Europako euskarazko lehenengo aipatuari urtetan hartu ziola aurrea (Eltso, 1561).

Hizkuntzen misio-erabilpenerako eta objetiboki geroko haien kultur garapenerako oinarriak sortuz, misiolari baten eskutik (A. de Olmos), nahuatl hizkuntzak bere gramatika argitaratuta izan zuen 1547an. 1524tik 1572ra, Mexikon 109 obra agertu ziren hango jatorrizko hizkuntzetan, edo beraiei buruz. Ia denak elizgizonek paratuak (Pottier 1983: 27-28).

Arestian Zumarragaren *Doctrina breve* aipatu da, 1543-1544.etan bere lehen edizioa izan zuena. Bertan ikus daiteke Zumarragaren

(12) 1992ko Aurkikunde-Ospakuntzak medio, lehenengo bibliografia guztiz zabaldu da, batez ere alorrez alor hainbat zertzelada ttipi eta larri jasoz. Urte horretan eta aurretik, Ordena erlijioso ezberdinen lan linguistikoa erakunde erakunde aztertu da. Argitalpenak, Deimos argitaldarien eskutik kaleratu dira (Madril), eta inoiz CSICek eman ditu argitara.

irizpideak noraino iristen ziren herri-hizkuntzen elizako erabilpenen eremuan; prediku-katekesiak ez ezik Bibliako zenbait libururen itzulpen herritarrek ere egin zitezela eskatu zuen Artzapezpikuak, hesiak ezartzen ibili gabe (Xirau 1973: 111):

No apruebo la opinión de los que dicen que los idiotas no leyesen en las Divinas Letras traducidas en la lengua que el vulgo usa: porque Jesucristo lo que quiere es que sus secretos muy largamente se divulguen. Y así desearía yo por cierto que cualquier mujercilla leyese el Evangelio y las Epístolas de san Pablo. Y aún más digo: que plugiese a Dios que estuviesen traducidas en todas las lenguas de todos los del mundo, para que no solamente las leyesen los Indios, pero aún otras naciones bárbaras [las pudiesen] leer y conocer. Y si me dixeren que habría algunos que se burlarían desta nuestra doctrina evangélica, también diré yo que habría otros que, conocida, se aficionarían a ella. [Azp. nirea].

Artean (1544), Kontrarreformaren lehorte biblikoa ez zen iritsi, noski, Ameriketara, eta aurreko hamarkadetako izpiritu-irekitasuna bere freskotasunean zegoen, nonbait, Mundu Berrian. Testu hori ez zen Artzapezpikuaren bihozkada hutsa. XVI. mendean Mexikoko ebanjelizatzearen inkulturazioak eta hizkuntzen ezagutzak hartuko zuen gailurra ezagutzeko hona hemen Aita Jeronimo Mendietak — Gasteizko San Frantzisko komentu nagusitik Indietako Kontseiluko Lehedakariari idatziz— misiolariez eta haietako bakoitzaren hizkuntz prestakuntzaz eman zituen datuen laburpena (Castro 1988: 488):

Un testimonio evidente de lo dicho [jatorrizko hizkuntza amerikarrak lantzearen lekuko dela, alegia] es el Informe del P. Mendieta, fechado en Vitoria el 20 de noviembre de 1570, dirigido al Presidente del Consejo de Indias, donde le hace relación de 238 misioneros franciscanos que residían o habían residido en Nueva España. Tres cuartas partes de los mismos sabían y practicaban perfectamente alguna de las lenguas de este gran territorio, algunos incluso sabían dos o tres lenguas de los nativos. [...]. Algunos, no pocos, escribieron y publicaron obras preciosas en esas lenguas hasta entonces desconocidas para los españoles.

XVI.ean hizkuntza amerikarrez edo haiei buruz idatzi zuten frantziskotarrak bakarrik 54ren bat izan ziren, eta hauetako batzuk itzal handiko frantziskotar euskaldunak genituen: Orotz nafarra (Azpilikueta Doktore Nafarraren obra bat otomierara itzuli zuena, 1572), Pila bilbotarra (taraskeraz dotrina bat idatzi zuena), Mendieta gasteiztarra (historilari ezaguna eta hizkuntz irakaslea), Zarate arabarra (predikari eta argitaratzailea) (Pazos 1962: 91-92, 108-110, 113, 147; Castro 1988: 491, 524-525, 531).

Hamarkada haietan erabili ziren misio-metodologiak eta hizkuntzekiko izan zen jarrera nahikoa ongi aztertuta daude gaur egun, eta inkulturazioaren azken eredu asebateak izan gabe, Mendebaldeko

Eliza latindarraren emaitzarik onenetako bezala ageri zaizkigu gaurko inkulturazioaren eliz autokritikatik begiratuta, nahiz eta orduan ere kontraesanik ez zen falta eguneroko lanetan, eta betiere sistema kolonial baten barnean zen (Pazos 1962: *passim*; Gómez Canedo 1977: 147-214).

Hizkuntza amerikarren aldeko hautapena ez zen egin gatazkarik gabe, misio-lanean mexikari eman zitzaion lehentasuna ikusiz eta konkistari/misiolarien arteko tenkan, jokabide hori gaztelaniaren kontrako bezala salatua izateraino, erran nahi baita, kultur proiektu kolonialaren aurkakotzat jotzeraino (Pazos 1956: 323-324).

Zalantzarik gabe, horren guztiaren oinarriak jarri ziren lehenengo bi hamarkadetan (1524-1544) aukera ederra izan zuen Lukuk Mexikon, pastoraltza eta hizkuntzak elkartuz, gertatzen ari zena Zumarragaren bidez ezagutzeko. Agiria eskuetan ez bada ere, aski segurutzat eman liteke gure Gotzainak ongi zekiela misio-lan hartan zer ari zen gertatzen, baita hizkuntzen erabileran ere.

Bukatzeko, datu osagarri bezala, gogora dezadan, Luku eta Zumarragaren artean Mexikoko kristautzea bien ardura izan zen bezala (1532-1533), hark San Ignazioekin izandako harremanetan ere, Amerikako ebanjelizatzearen aldeko eskeak aurea hartu ziela (1538), gero, Gotzain izatean, Kalahorrako Elizbarrutiaren alde loiolatarrari egingo zizkion deiei.

Arestian jaso dugun pasarteren batek erakusten duenez, Indietako pastoraltza-eginbeharrak eta hemengoak ez zeuden elkarrengandik urrun: azken finean, eliz misio beraren bi aurpegikera baizik ez ziren, eta halaxe sentitzen zituen Lukuk bezala San Ignaziok ere. Herri arrotzetaraino iritsi den Lagundiak, are arrazoi handiagoengatik egon beharko luke Euskal Herrian, gogorarazten dio Lukuk San Ignaziori (*MHSI/Mon. Ign.* Ser. I: I, 241; III, 319-320; 368-370; XII, 403).

Beraz, pastoraltza eta herrien hizkuntz izaera uztartuta eraman nahi zituen pentsamendu horren barnean aurkitzen dugu Luku Gotzaina, bizitza pertsonalak eta lan instituzionalak halaxe erakutsita.

AZKEN OHARRAK

Iragan orrialdeetan saiatu gara Joan Bernal Díaz de Luku-ren albiste berrienak biltzen, eta haren euskararekiko interesa bere ingurumenduan azaltzen. Gotzainak euskararen alde hartu zituen artzain-erabakiez dakiguna ez da sobera: euskara hobetsi zuela euskaldunei kristau-mezua eskaintzeko, eta irizpide hori egintzetara eramateko behin eta berriz dei egin ziola Ignazio Loiolakoari bere Lagundikoak hona bidal zituzan, berezikiago josulagun euskaldunak. Urrats bat gehiago eman ez, Lagundirako "politika euskalduna" ere idaroki zuen: euskaldunak hartzen ere saia zitezela Lagundian, gero beroriek Euskal Herri pobre eta euskaldun honen zerbitzura jartzeko.

Euskal Herriko Kontrarreforma, orduan bertatik eta irizpide hauekin azken burura eramaterik ez zuen izan Lukuk, 1556an hil baitzen. Eta Lagundiak bestelako bideak maiteago izan zituen Euskal Herrian XVI-XVII. mendeetan batez ere, ikastetxeetako lanari lehentasuna eman ez (XVIII. ean prediku-lana berriz ere indar-berritu zen arte). Une batean

hastapen ona izan zuenak ez zuen aurrera egin, predikuan eta katekesi herritar zabaldu, iraunkor eta bizi batean.

Bestalde (orain arte heldu ez diogun zerbait aipatuz), Lukuk berak ere euskararen eliz erabilpenari buruz ez zuen deus esan bere Sinodo-arauetan (1553/1555), eta ohore hori ondoko mendeko Gotzainei zor zaie (Pedro Manso de Zúñiga, 1594-1612; Pedro de Lepe, 1686-1700). Hala ere, Bernal Doktorea aitzindaria izan zela esan behar da: euskararen eliz beharra aitortuz ez ezik eliz erakunde euskaldun azkar baten premia ere aurrikusi edo barruntatuz.

Euskal Herriko eta bertotik kanpoko Gotzain-hirietan izan ditugun Apezpikuen artean “euskaltzale” goiztarra da Luku (1545-1556), eta, zalantzarik gabe, euskal Diasporatik Herrira itzuli eta jatorrikoen alde leialki ahalegindu zena, inolako txokokeriatan ito gabe.

Izan ere, mundura eta herriartera buru-bihotzak irekirik zituen gizona izan zen: Eliza unibertsalera (Trento), garaiko korronte intelektualetara (humanismoa, erasmismoa), munduan suertatzen ari ziren gertakari handietara (Aurkikunde kolonialak, Amerikako ebanjelizatzea, Eliza kristuen erreformak).

Lukuk, garaiko *establishment* ofizialetik oso gertu jarduen zuen, barnetik lan egin ez zuenean ere (alde hau albora utzi da idazlan honetan); baina, itxura guztiz, herritar apalei, bere jatorrikoiei eta errealitate sozialei adi zegoen idazle eta agintaria zen, nahiz eta Lukuren alderik ezaugarrienetakoa lege-gizon ikastunarena izan (hemen, bide batez, aipatu baizik egin ez duguna).

Jakingarri gertatzen da, bestalde, XVI. mende hartan gure zenbait gidari erlijioso elkarrengandik zein gertu aurkitu zen ikustea, bizi izandako gertakarietan eta baita garaiko arazo handiei erantzutean ere, munduan sakabanatuta baina sorterrira begira: Erromatik nahiz Trentotik Begoña edo Lukura, Mexikotik Durangora edo Arantzazura, eta geure herrira bezala herri aurkitu berrietara.

Euskal Herria gidatu duen eliz Hierarkiaren historia modernoan Gotzainik buruz jantzienetakoa izan dugu Luku, eta agian gure herriaren funtsezko kultur eskubide bati begiramenik abegikorrenetakoa izan diona. Zoritxarrez, berehalako ondokoek ez zituzten adore, gogo eta buru-argitasun berak jarri, behar zen ahaleginean. Kontrarreforma ez zuten gidatu Luku edo Etxaus bezalako “euskaltzaleek”, nahiz eta Venegas de Figueroa-ren bat ez zen falta Iruñean (1609).

Esan behar da hizkuntzarekiko begirapuntua betiere *pastoral*a zela Luku-rengan, hau da, Elizaren beraren helburuetara zuzendua, eta ez herrien funtsezko eskubide beregainetatik behatu eta zuzenean berorien mesedetan norabideratutako politika. Urrun zegoen Luku, artean, gaur egungo inkulturazio-teoria teologikoetatik, eta zer esanik ez, gaur egungo antropologia kulturaletik. Jakitekoa izango litzateke, Ameriketako triskantza fisiko eta kulturala nola juzkatu zuen, eta jakitekoa ere, adibidez, beste euskaldun “erbesteko” batek, Aita Vitoriak, hartaz esandakoez zuen iritzia. Dena den, badakigu begi onez ikusi zuela Luku-ren lana Las Casas-ek; kolonialismo gordinetik albora egon zen, nonbait, Luku.

Garaiko inguruari begira, Elizbarrutiko kleroaren erreforma ez ezik herri xumeari zor zion zerbitzua ere gogoan hartu zuen Gotzain

honek, predikari, misiolari eta dotrinariak herrietara bidaltzen ahaleginduz.

Elizak eta garaiek ezartzen zituzten mugen barnean lan egin behar izan zuen euskarari Elizan, zegokion lekua aitortzean: beti, Eliza erromatar latindarrean, eta Kontrarreforma katolikoaren barruan.

Egindakoa ez zen izan deus handia, gutziz mugatua baizik, eta hala ere, aitzindari honek aipu on bat merezi du, erbestetik beretarrengana etorri eta, besteak beste, berauen jatorrizko giza eskubide bat, hizkuntzarena, ohartuki begiratu eta itzal hobez tratatu zuelako.

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

Ondoko bi zerrenda hauetan ez dugu dena jaso nahi izan, ez ikaslanen bibliografian, ezta iturri inprimatuetan ere, baina aski zabalak izaten saiatu gara, gai-inguru honetara hurbildu nahi izango lukeen ikastunari lehen urratsak samurtzeko asmoz, eta azterlan honen nondik norakoen berri emateko.

1. Iturriak eta Luku-ren obra propioak

Lukuk 30en bat obra idatzi zuen, gehienak argitara emanak eta gutxi batzuk eskuizkributan geratu direnak. Haietako batzuek, idazlanean adierazi den bezala, argitaraldi errepikatuak izan zituzten, batez ere XVI. mendean. Hemen, gurerako interesgarrienak bakarrik jaso dira. Bibliografia zehatz eta osoa ezagutzeko, begira Marín 1972b.

- (1898...): *Monumenta Historica Societatis Iesu*. Urte eta argitara-leku ezberdinetan agertu dira bilduma handi honetako sortak. Hemen bereziki interesatzen zaizkigunak “Monumenta Ignatiana” eta “Epistolae Mixtae” dira, “Sanctus Franciscus Borgia/III” edo “Polanci Chronicon” deritzana ahanzi gabe.
- DIÁZ DE LUCO, J. B. (1545): “Capitulaciones entre el Obispo de Calahorra Don Juan Bernal Díaz de Luco y el Señorío de Vizcaya (23.IX-1545)”, in: Mañaricúa 1951 apéndice.
- DIÁZ DE LUCO, J. B. (1532): *Lettres envoyées au chapitre general de Frères mineurs de la régulière observance célébré en la tres illustre et magnifique cité de Tholose en la solemnité de la Penthecoste l'an mil DXXXII*. Toulouse: J. Barrill. (Latinezko orijinaletik frantsesera itzulia: gordetzen den bakarra. Ik. Marín 1952: 300; Civezza 1857-1895: VI, 568-570)
- DIÁZ DE LUCO, J. B. (1543): *Practica criminalis canonica*. Lyon. (Ed. ugariak izan zituen: ik. Marín 1952: 305).
- DIÁZ DE LUCO, J. B. (1548): *Instrucciones para los visitadores del obispado*. (Valladolid-eko Sta. Cruz Ikastetxeko Artxiboan, ms. 186, 264-267. Ik. T. Marín 1962).
- DIÁZ DE LUCO, J. B. (1553a): *Carta desde Trento*. (1549koa da. Ik. T. Marín 1962).

- DIAZ DE LUCO, J. B. (1553b): *Soliloquio o razonamiento secreto con el ánima*. (Marín, 1962).
- DIAZ DE LUCO, J. B. (1555a): "Capítulos para los oficiales de la Audiencia Episcopal. Vitoria 1545", in: Díaz de Luco 1555b: 120-122.
- DIAZ DE LUCO, J. B. (1555b): *Constituciones Synodales*. Lyon.
- GÖRRES GESELLSCHAFT (ed.) (1901...): *Concilium Tridentinum. Diariorum, actorum, epistularum, tractatum nova collectio*. Friburgi Brisgoviae: Herder. (=CT).
- MARIN, T. (ed.) (1962): *Soliloquio y Carta desde Trento*. Barcelona: Juan Flors (Col. "Espirituales Españoles").

2. Luku eta bere inguruari buruzko azterlanak

- ACADEMIA DE LA HISTORIA, REAL (1802): *Diccionario geográfico-histórico de España*. Madrid: Viuda de Joaquín Ibarra. s. v. "Luco".
- ADEVA, I. (1994): "¿Fue Zumárraga erasmista?", in: ZUMARRAGA, Fr. Juan de (1994): *Regla cristiana breve. Edición crítica y estudio preliminar*. Pamplona: Ediciones Eunat. LXXIX-XCIII.
- ADEVA, I. (1995): "Fray Juan de Zumárraga: *Regla Cristiana Breve*", in: *Hispania Sacra*. XLVII, 1995, 109-117.
- AGUIRRE, J. (1935): "San Ignacio y el idioma vasco: relación de las ocasiones en que el santo utilizó públicamente su lengua nativa", in: *Yakintza*. XVI, 1935, 270-277. (Orain: *Enc. Vasca*. I, 1966, 161-183).
- A[GUIRRESAROBÉ], C. (1948): "San Ignacio y el vascuence", in: *BRSBAP*. IV, 1948, 119-120.
- ALAMO, M. (1949): "Calahorra, [Diocèse de]", in: *Dictionnaire d'Histoire et de Géographie Ecclésiastiques*. Paris: Librairie Letouzey et Ané. XI, 267-327. zut., s.v. "Calahorra".
- ALDEA, Q., et al. (1972): *Diccionario de Historia Eclesiástica de España*. Madrid: CSIC.
- ALVÁR, M. (1991): "La lengua hablada por San Ignacio", in: *ABC*. 1991, 19 Noviembre.
- ASPURZ, L. de (1946): *La aportación extranjera a las misiones extranjeras del Patronato regio*. Madrid.
- ASTRAIN, (1902): *Historia de la Compañía de Jesús en la Asistencia de España*. Madrid.
- AZCONA, T. (1981): "Historia de la Iglesia en el País Vasco. Otoño de la Edad Media: 1378-1516", in: *Varii* 1981: 69-106. (Euskal Herriko Elizaren erreformaz: 95-105).
- BAUDOT, G. (1983): *Utopía e Historia en México*. Madrid: Espasa-Calpe.
- BORGES, P. (1960): *Métodos misionales en la cristianización de América. Siglo XVI*. Madrid: CSIC.
- CASTRO Y CASTRO, M. (1988): "Lenguas indígenas americanas transmitidas por los franciscanos del siglo XVI", in: (1988): *Actas del II Congreso Internacional sobre los franciscanos en el Nuevo Mundo*

- (siglo XVI). *La Rábida, 21-26 de septiembre de 1987*. Madrid: Ed. Deimos. 485-572. or.
- CHOMARAT, J. (1981): *Grammaire et rhétorique chez Erasme*. Paris: "Les Belles Lettres".
- CIVEZZA, M. da (1857-1895): *Storia universale delle Missioni Francescane*. Roma/Prato/Firenze. (11 libk.—Lukuren 1532ko gutuna: VI, 568-570).
- COLERA, A. (1994): "Situación lingüística de Azpeitia, fines del siglo XV-XVI: La(s) lengua(s) de Iñigo de Loyola", in: ORELLA, J.L. (ed.) (1994): *El pueblo vasco en el Renacimiento (1491-1521)*. Bilbao: Univ. de Deusto (Ed. Mensajero). 483-490.
- DALMASES, C. de (1977): *Fontes documentales de S. Ignatii familia et patria, iuventute, primis sociis*. Roma: Institutum Historicum Societatis Iesu. (In: MHSI).
- DALMASES, C. de (1979): *El Padre Maestro Ignacio*. Madrid: BAC Popular.
- DALMASES, C. de (1983): *El Padre Francisco de Borja*. Madrid: BAC Popular. ["El apóstol del País Vasco. 1551-1552": 89-105].
- GALDOS, R. (1919): "Un incendio feliz en Aránzazu", in: (1919): *Primer Congreso de studios Vascos. (Oñate, 1-8 de septiembre de 1918)*. Bilbao: Bilbaína de artes gráficas. 569-589.
- GALDOS, R. (1953): *Oñate por el Santo Duque. (Documental histórico para una monografía del Bienio Oñatiense de san Francisco de Borja)*. Zarauz: Editorial Icharopena.
- GARCIA DE CORTAZAR, J. A. (1985): "Los rasgos de la mentalidad y la sensibilidad viscaínas", in: GARCIA DE CORTAZAR, J. A. et al. (1985): *Bizcaya en la Edad Media*. San Sebastián: Haranburu Editor. III, 107-157.
- GARCIA FERNANDEZ, E. (1992): "El catecismo medieval de Arnaldo de Barbazán, obispo de la Diócesis de Pamplona (1318-1355)", in: *En la España Medieval*. XV, 1992, 344-ss.
- GARCIA FERNANDEZ, E. (1994b): "Catecismos y catequesis en las comunidades vascas (siglo XV-XVI).", in: García Fernández 1994a: 25-51.
- GARCIA FERNANDEZ, E. (ed.) (1994a): *Religiosidad y sociedad en el País Vasco*. Bilbao: UPV/EHU.
- GARIBAY, E. de (1854): *Memorias de Garibay*. Madrid: Real Academia de la Historia. (In: *Memorial Histórico Español*: vol. VII).
- GOMEZ CANEDO, L. (1977): *Evangelización y conquista*. México: Editorial Porrúa.
- GONZALEZ NOVALIN, J. L. (1980): "Religiosidad y reforma del pueblo cristiano", in: ID (1980): *Historia de la Iglesia en España*. III-1º. *La Iglesia en la España de los siglos XV y XVI*. Madrid: Ed. Católica. 315-384.
- GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1955): "El vasco y la elección del obispo de Pamplona en 1539", in: *Rev. Esp. de Der. Can.* X, 1955, 743-751.
- GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1979-1985): *Historia de los Obispos de Pamplona*. Pamplona: Gobierno de Navarra. (I-IV liburukiak).
- GORRICHIO MORENO, J. (1981): "Geografía eclesiástica del País

- Vasco peninsular (s. XII-XX)", in: *Varii* 1981: 237-247.
- GUTIERREZ, C. (1951): *Españoles en Trento*. Valladolid.
- INSAUSTI, S. (1964-1968): "Competencias de autoridades civil y eclesiástica en Guipúzcoa", in: *BRSBAP*. XX, 1964, 259-276 (XVI. mendean); XXII, 1966, 81-95 (XVII. mendean); XXIV, 1968, 141-154 (XVIII. mendean).
- INTXAUSTI, J. (1993): "Granada 1492: Garbiketa etniko baten bezperan", in: *Jakin*. 1993, 74. z., Urtarrila-Otsaila, 65-76.
- JEDIN, H. (1949-1975): *Geschichte des Konzils von Trient*. Frankfurt. (Gaztelaniazko itzulpena: (1972-1975): *Historia del Concilio de Trento*. Pamplona: Eunsa).
- LABAYRU, E. de (1900 [1971]): *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca. IV, 236-242, 250-251, 257-258, 299, 766-768.
- LOPETEGUI, L. (1961): "La lengua nativa de San Ignacio de Loyola", in: *BRSBAP*. XVII, 1961, 51-94. (Luku-ri buruz: 64-66).
- MALAXECHEVARRIA, J. (1926): *La Compañía de Jesús por la instrucción del País Vasco*. San Sebastián: San Ignacio. 27-29, 31-33, 42, 606-607.
- MAÑARICUA NUERE, A. E. de (1950a): *Santa María de Begoña en la historia espiritual de Vizcaya*. Bilbao: Ed. Vizcaína. (San Ignazio eta Luku-ren arteko eskutizketa ere jaso zuen: 23*-30*, ik. 187-193).
- MAÑARICUA NUERE, A. E. de (1950b): *Santa María de Begoña y su Santuario*. Bilbao: Ed. Vizcaína.
- MAÑARICUA NUERE, A. E. de (1951): *Las nuevas diócesis de Bilbao y San Sebastián y sus antecedentes históricos*. Salamanca: CSIC.
- MAÑARICUA NUERE, A. E. de (1957): "Problemas religiosos en la Vizcaya de los siglos XIV y XV", in: (1957); *La sociedad vasca rural y urbana en el marco de los siglos XIV y XV*. Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína.
- MAÑARICUA NUERE, A. E. de (1975): *Santa María de Begoña*. Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína (Col. Temas Vizcaínos, 6).
- MAÑARICUA NUERE, A. E. de, et al. (1964): *Obisposados en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la diócesis de Vitoria*. Vitoria: Eset (Victoriensia, 19).
- MARIN, T. (1948): "Primeras repercusiones tridentinas. El litigio de los Cabildos españoles y su proceso en la Diócesis de Calahorra", in: *Hispania Sacra*. I, 1948, 325-349.
- MARIN, T. (1952): "La Biblioteca del obispo Juan Bernal Díaz de Luco (1495-1556)", in: *Hispania Sacra*. V, 1952, 264-312. (Luku-ren obra osoa ezagutzeko funtsezko lana, eta gisa berean baita haren biblioteka ezagutzeko ere).
- MARIN, T. (1954a): "El obispo Juan Bernal Díaz de Luco y su actuación en Trento", *Hispania Sacra*. VII, 1954, 259-325.
- MARIN, T. (1954b): "La Biblioteca del obispo Juan Bernal Díaz de Luco. Lista de autores y obras", *Hispania Sacra*. VII, 1954, 47-84.
- MARIN, T. (1962-1963): "«Instrucción para los visitantes del obispado de Calahorra» del obispo J. B. Díaz de Luco", in: *Homenaje a Johannes Vincke*. Madrid: 519-535.

- MARIN, T. (1963): "El «Catalogus Sanctorum Episcoporum» del obispo Bernal Díaz de Luco». *Hispania Sacra*. XVI, 1963, 374-403 ss.
- MARIN, T. (1963): "El obispo J. B. Díaz de Luco y sus escritos ascético-pastorales: Corrientes espirituales en la España del siglo XVI", in: *Trabajos del II Congreso de Espiritualidad*. Barcelona. 451-508.
- MARIN, T. (1972a): "Calahorra, La Calzada y Logroño, Dióc. de", in: Aldea et al. 1972: I, 305-313.
- MARIN, T. (1972b): "Díaz de Luco, Juan Bernal", in: Aldea et al. 1972: II, 750-753.
- MENDIETA, J. (1973): *Historia eclesiástica indiana*. Madrid: Ed. Atlas (BAE, 260-261).
- MUGICA, P. (1936): "Reminiscencias de la lengua vasca en el «Diario» de San Ignacio", in: *RIEV*. XXVII, 1936, 57-61.
- MURO ABAD, J. R. (1994): "El clero diocesano vasco en los siglos XV y XVI: una imagen", in: García Fernández 1994: 53-82.
- ODRIOZOLA, A. (1982): "Libros diocesanos del País Vasco impresos antes del Concilio de Trento. Resumen bibliográfico y noticia de una rara edición de sinodales de Calahorra y La calzada", in: *Scriptorium Victoriense*. XXIX, 1982, 224.252.
- ORELLA, J.L. (ed.) (1994): *El pueblo vasco en el Renacimiento (1491-1521)*. Bilbao: Univ. de Deusto (Ed. Mensajero).
- PAZOS, M. R. (1956): "Los misioneros franciscanos de Méjico y las lenguas indígenas", in: *España Misionera*. XIII, 1956, 301-333.
- PAZOS, M. R. (1962): *Misionología mejicana: Lingüistas y políglotas franciscanos*. Tánger: Tip. Hispano-Arábica de la Misión Católica.
- POTTIER, B. (1983): *América Latina en sus lenguas indígenas*. Paris: Unesco.
- SAN JUAN DE LA CRUZ, L. (1925): *Historia de Calahorra y sus glorias*. Valencia: Tip. del Carmen.
- SANCHEZ HERRERO, J. (1986): "La literatura catequética en la Península Ibérica. 1236-1553", in: *En la España Medieval. Estudios en memoria del Profesor D. Claudio Sánchez Albornoz*. nº V, II. lib., 1986, 1051-1118.
- SANCHEZ HERRERO, J. (1988): "Alfabetización y catequesis franciscana en América durante el siglo XVI", in: VARII (1988): *Actas del II Congreso Internacional sobre los Franciscanos en el Nuevo Mundo (Siglo XVI)*. Madrid: Ed. Deimos. 598-648. (Katekesi-argitalpenen Penintsulako historiaz: 589-600).
- SOLA, S. (1956): "En torno al castellano de San Ignacio", in: *Razón y Fe*. 153, 1956, 243-274.
- THALAMAS LABANDIBAR, J. (1970): "Erasmistas y reformistas vascos", in: (1970): *BRSBAP*. XVI, 1970, 359-402.
- TELLECHEA, J. I. (1963): *El obispo ideal en el siglo de la reforma*. Roma: Iglesia Nacional Española. (Lukuri buruzkoak: 45-65).
- TELLECHEA, J. I. (1956): "Juan Bernal Díaz de Luco y su «Instrucción de Perlados»", in: *Scriptorium Victoriense*, 3, 1956, 190-209.
- TELLECHEA, J.I. (1988): "La Iglesia en el País Vasco en los siglos XVI-XVIII", in: (1988): *II Congreso Mundial Vasco. Economía,*

- sociedad y cultura durante el Antiguo Régimen*. San Sebastián: Txertoa. III, 383-394.
- VAL VALDIVIESO, I. del. (1985): "La organización eclesiástica", in: GARCIA DE CORTAZAR, J. A. et al. (1985): *Bizcaya en la Edad Media*. San Sebastián: Haranburu Editor. III, 159-236.
- VARII (1981): *I Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco*. Vitoria: Facultad de Teología.
- XIRAU, R. (1973): *Idea y querrela de la Nueva España*. Madrid: Alianza Editorial.
- ZUBIAUR, J.R. (1990): *Las ideas lingüísticas vascas en el siglo XVI*. San Sebastián: Univ. de Deusto (Mundaiz).
- ZUBIAUR, J.R. (1994): "Euskara y castellano en el País Vasco en la época de Iñigo de Loyola", in: Orella 1994: 472-482.